



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**BIOLENTZIAREN TRATAERA GORPUTZ-
HEZKUNTZAN
AURKARITZA ZUZENAREN BITARTEZ**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Nazabal Estévez, Beñat.

ZUZENDARIA: López de Sosoaga López de Robles, Alfredo.

2019

LABURPENA

Izandako esperientzia eta bizipen pertsonalak motibatuta, betidanik praktikatu dudan kirolaren inguruko ikerketa aurkezten dut hurrengo orrialdeetan. Hau, biolentziarekin batera sarritan aipatzen da gure inguruan, kontaktua eta aurkaritza zuzena oinarri moduan dituen heinean. Zehazki, arte martzialen eta borroka-kirolen konnotazio sozialaren azterketa egin dut.

Hasteko, biolentzia eta agresibitate kontzeptuak zehaztu ondoren, arte martzialekin eta borroka-kirolekin hasi naiz, arte martzialetan gehiago sakonduz eta zehaztasun gehiago emanaz. Hauen lanketa egiteko finkatu nituen xedeen artean, hurrengoak daude: haurren garapenean izan ditzaketen onurak aztertzea, jorratzen dituzten baloreak eta jarrera-ildoak ezagutzea, atzean dagoen ideologiaren deskribapena egitea, gorputz-hezkuntzan garrantzia hartzen duten ezaugarriak adieraztea, errespetuan oinarritutako jarrera sustatzea eta arte martzialen inguruan dauden aurreiritzien kontrako alderdi positiboak (eta seguruenik ezezagunak) azaltzea.

Horiek marko teorikoan azalduta daudelarik, nire *Practicum III* esperientzian praktikan jartzeko aukera izanik, haurrekin egindako esku-hartze didaktikoan ikertutakoa plazaratzen dut: helburuekin hasita, metodologiarekin jarraituz (ikerketa kualitatiboan oinarritu dudan ikerketarako prozedurak eta tresnak) eta lortutako emaitzak aurkezten amaitzeko.

Emaitzen ostean, ondorioak luzatzen ditut, ikerketaren bitartez lortutako emaitzen interpretazioa. Hauetan, haurren artean izandako giro ona, emozioen identifikazio aberatsa, motibazioa eta gogo-indarraren kontrolaren gaineko kontzientzia-garapena eta, hasieratik nahi nuen moduan, biolentziari buruzko aurreiritzien kontra egiten dut arte martzialei dagokienez, haurrekin batera lan eginez. Amaitzeko, hainbat hobekuntza proposamen egiten ditut. Izan ere, denbora gehiago izanez gero, ikerketa asko luzatuko nuke, gai honek aukera-sorta zabala zabaltzen baitu.

HITZ GAKOAK: *biolentzia, arte martzial, aurkaritza, borroka eta gogo-indarra.*

RESUMEN

Motivado por las experiencias y vivencias personales, expongo en las siguientes páginas un análisis del deporte que he practicado desde siempre. Éste, a menudo se nombra en nuestro alrededor junto con la violencia, ya que tiene como base el contacto y el enfrentamiento directo. Concretamente, he realizado un análisis sobre la connotación social de las artes marciales y los deportes de contacto/lucha.

Para empezar, después de definir los conceptos de agresividad y violencia, he descrito las artes marciales y deportes de lucha, profundizando más en las artes marciales. Para analizar estos conceptos, los objetivos que he definido son los siguientes: investigar acerca de los beneficios en el desarrollo de los niños/niñas, conocer los valores y los principios de comportamiento que trabajan, describir la ideología que guardan, exponer las características que tienen importancia en educación física, fomentar el comportamiento respetuoso y hacer frente a los prejuicios que rodean a las artes marciales.

Una vez que las ideas anteriores están explicadas en el marco teórico, pudiendo ponerlo a prueba en mi experiencia de *Practicum III*, paso a exponer lo investigado mediante la intervención didáctica: comenzando por los objetivos, seguidos de la metodología (la cual he basado en investigación cualitativa describiendo procedimientos y herramientas) y para acabar con la exposición de los resultados obtenidos.

Después de los resultados, extendiendo las conclusiones, la interpretación de los datos obtenidos. En éstos, presento el buen ambiente creado entre los niños, el rico reconocimiento de las emociones, la toma de conciencia de la motivación y de la fuerza de voluntad y, como buscaba desde el principio, hago frente a los prejuicios sobre la violencia en cuanto a las artes marciales. Para concluir, hago varias propuestas de mejora. De hecho, si hubiera tenido más tiempo, habría extendido la investigación, ya que este tema abre un amplio abanico de posibilidades.

PALABRAS CLAVE: *violencia, arte marcial, enfrentamiento, lucha y fuerza de voluntad.*

ABSTRACT

Motivated by my personal experiences and life lessons, I present in the following pages the analysis of the sport I have been practicing since I was a child. This, is often named in relation with violence, because is based on contact and direct confrontation. Specifically, I have analyzed the connotation of martial arts and fight/contact sports in our society.

First of all, after defining the concepts of violence and aggressiveness, I have described martial arts and fight sports, focusing my explanations on martial arts. For this research, I defined the following objectives: investigate about the benefits for children's development, know the values and principles of behavior they work on, describe the ideology they hide, present the characteristics that take importance in physical education, promote the respectful behavior and go against the prejudices that involve martial arts.

After explaining these ideas in the theory-part, I start presenting the investigation I did in my *Practicum III* experience by taking part with a didactic design: starting with objectives, following with the methodological part (which I based in qualitative investigation describing procedures and tools) and last, I finish with the results exposition.

Once finished with that, I extend conclusions, the interpretation of the results I got. In this part, I describe the good atmosphere I create with children, the rich recognition of emotions, the awareness of motivation and self will power and, as I was lookin for since I started the research, I go against the prejudices that involve martial arts. And last, I make some improvement proposals. In fact, if I had had more time, I would have extended my investigation, because this topic opens a big variety of possibilities.

KEY WORDS: *violence, martial art, confrontation, fight and will power.*

AURKIBIDEA

0. SARRERA	7
1. JUSTIFIKAZIOA	8
2. MARKO TEORIKOA	9
2.1. BIOLENTZIA ETA AGRESIBITATEA	9
2.2. BIOLENTZIA KULTURAN	10
2.3. ARTE MARTZIALAK	13
2.4. JIU JITSU BRASILDARRA	14
3. HELBURUAK	16
3.1. HELBURU NAGUSIA	17
3.2. AZPI-HELBURUAK	17
4. MARKO METODOLOGIKOA	18
4.1. KOKAPENA	18
4.1.1. Practicum III	18
4.1.2. Partaideak	19
4.2. IKERKETARAKO TRESNAK	21
4.2.1. Behaketa parte-hartzailea	21
4.2.2. Gertaera adierazgarrien bilduma	22
4.2.3. Galdetegia	23
4.3. ARLO ETIKOA	25
5. EMAITZAK	26
5.1. EMAITZA DIDAKTIKOAK	26
5.2. SASI-IRAKASLE LANEAN LORTURIKO EMAITZAK	28
5.3. GALDETEGIAREN EMAITZAK	30
5.3.1. “Zer sentitu duzu Gorputz Hezkuntzako saio hauetan?”	30
5.3.2. “Nolakoa izan da zure egoera orokorrean?”	31
5.3.3. “Noiz sentitu duzu emoziorik indartsuena?”	31
5.3.4. “Zein izan da emozioa kasu bakoitzean?”	32
6. ONDORIOAK	34
6.1. HELBURUETAN OINARRITUTAKO ONDORIOAK	34

6.2. EMAITZETAN OINARRITUTAKO ONDORIOAK	35
7. HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK	37
8. ERREFERENTZIAK	39
9. ERANSKINAK	43

0. SARRERA

Gratu Amaierako Lana (GrAL) banaka egin beharreko proiektu, memoria edo azterlan bat da, graduari jaso ditugun eduki, gaitasun, ahalmen eta trebetasunak sakontzeko eta garatzeko. Nire kasuan, ikerketa lana egitea erabaki dut, nire Practicum III esperientziarekin lotuta dagoena. Honetan, lehen hezkuntzan jardunez, biolentziaren trataera egitea dut xede nagusi moduan, gizarteak dituen pertzepzioak kontuan izanik eta arte martzialek eta borroka-kirolek jokatu dezaketen paperaren inguruan ikertuz, guztia haurren garapenean eragin positiboak lortzeko helburuarekin. Noski, praktika hau gorputz hezkuntzako ikasgaiaren eman dudala esan behar dut, hautatutako minorraren ildo jarraituz eta nire etorkizuneko lana izango denaren profesionaltasun-izaera bilatuz.

Hau guztia, nire kasu pertsonalean pentsaturik proposatu nuen. Izan ere, arte martzialen eta borroka kirolen praktikak asko lagundu nauelako erlazio sozialei eta indar emozionalari dagokienez. Are gehiago, askorentzat biolentzia handiko praktikak diren hauek, niretzako oso lagungarriak izan dira biolentziaren perspektiba aldatzeko, bestearekiko errespetua garatzeko, nire buruarekiko eta bestearekiko ezagutza edo hurbilpen fisikoaren inguruan kontzientzia hartzeko eta, gainera, adimenaren eta gorputzaren arteko oreka aurkitzeko.

Horrez gain, haurtzaroan eta nerabezaroan zehar izan nituen hainbat arazoekin lagundu nindutela aitortu nahiko nuke, erraza izan ez zelako. Hasteko, eskolaren kirol eskaintza futbolera mugatzen zen, gustuko ez nuen kirola eta hasieratik “kuadrillak” markatzen zituen jarduerara; beraz, kanpoan gelditu nintzen lehen hezkuntzako laugarren mailan. Horren ondorioz, kirol praktikara eta txapelketetara mugatu nintzen nire aisialdian, emaitza onak lortuz eta garrantzitsuena dena, jendearekin erlazionatzeko gaitasunak era desberdinean garatuz eta emozionalki indarra hartuz. Orain, “futbolari-kuadrilla” batean nago eta haiek askotan esaten didate berriro hautatzeko aukera izango balute, ez luketela futbola hautatuko; beste arlo batzuk garatzen dituen kirola baizik, nire ideien inguruan askotan hitz egiten dugun heinean.

Horrek guztiak, pentsatzeko arrazoï asko eman dizkit beti eta aipatutako aurkaritza-praktika hauen erabilera hezkuntzan aplikatzea onuragarria izan daitekeela baieztatzeko asmoarekin, hurrengo orrialdeetan aurkituko duzuen lana garatu dut.

1. JUSTIFIKAZIOA

Gaur eguneko egoerari erreparatuz, biolentziaren presentzia nabarmenki igo dela esan dezakegu. Egunero ikusten ditugu mota bateko edo besteko gertaera biolentoak komunikabideetan: lapurretak, erasoak, hilketak, bortxaketak eta abarrekoak. Izan ere, horrelako gertakarietan zentratzen dira komunikabide nagusiak, baina gure eskoletan ere ematen da biolentziaren manifestua. Hau, Palomero eta Fernández-en aburuz, hainbat eratan gerta daiteke:

la «violencia directa» (física, psicológica o moral), que está aumentando de hecho en casi todos los países del mundo y que se manifiesta principalmente como violencia de los alumnos hacia sus iguales, como violencia en las relaciones entre profesores y estudiantes, o como violencia en el entorno del centro escolar (2001: 34).

Egoera erreal honen kontra egiteko, aurkaritza zuzenean oinarrituriko esku-hartze didaktikoa aurrera eraman nahi izan nuen nire praktikaldian, arte martzialen eta borroka-kirolen diziplinak biolentzia tratatzeko tresna egokia den aztertzeko asmoarekin. Izan ere, biolentziaren trataerak haurren hezkuntza integralarekin erlazio zuzena du, gizartean denbora oro agertzen den gaia delako eta bai sozialki, bai emozionalki pisu handia hartzen duelako.

Horregatik, gogo-indarrean eta bestearekiko errespetuan fokatu dut nire arreta, praktika hauek dituzten aurreiritzien kontra eginez (biolentzia handikoak direla esaten duten horien kontra) eta biolentzia beraren aurka izan ditzaketen onurei indarra emanaz; batez ere, arlo sozialean eta emozionalean. Beraz, ideia hauetan oinarritu ditut nire planteamenduan agertzen diren helburuak, aurrerago aurkituko dituzuenak.

Helburuei heldu aurretik, gizartearen pertzepzioa eta iritzi desberdinak aztertu nahi ditut, praktika horien atzean dauden ideiak ere kontuan izanik. Hau guztia, testuingurua ahalik eta hoberen ezagutzeko asmoarekin planteatu dut aurrera egiten jarraitu baino lehen.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. BIOLENTZIA ETA AGRESIBITATEA

Ikerketa honen atzean dagoen eduki teorikoekin hasteko, ezinbestekoa egiten zait lanaren ardatza markatzen duen hitza definitzea: biolentzia bera. Izan ere, termino hau askotan agresibitate moduan kalifikatzen da eta, nahiz eta bata bestearekin erlazioa eta elkarreragina eduki, ez dira gauza bera.

Hasteko, agresibitatearen inguruan jakiteko, hurrengo definizioa hartu dezakegu, Madrileko *Universidad Autónoma*-ren psikologiako gai-zerrendatik:

El término agresividad hace referencia a un conjunto de patrones de actividad que pueden manifestarse con intensidad variable: puramente físico, emocional, cognitivo y social. Es una manifestación básica en la actividad de los seres vivos (Huntingford & Turner, 1987: 4).

Beraz, agresibitatea, izaki bizidunen jarduera-patroiei egiten die erreferentzia, hainbat intentsitate eta motatan eman daitekeena. Ondoren, biolentzia definitzeko, MOE-k (Munduko Osasun Erakundeak) proposatutakoa hartu dut:

La violencia es el uso intencional de la fuerza física, amenazas contra uno mismo, otra persona, un grupo o una comunidad que tiene como consecuencia o es muy probable que tenga como consecuencia un traumatismo, daños psicológicos, problemas de desarrollo o la muerte” (2012).

Irakurri dezakegunez, Munduko Osasun Erakundeak, mina edo kaltea egiteko intentzioari egiten dio erreferentzia.

Bi definizio hauek iturri desberdinetatik lortu ditudala, Hik Hasi aldizkariko adituek emandako azalpena aurkeztu nahi dut, bi terminoak barnebiltzen dituen. Izan ere, hezkuntzaren munduan, haur hezkuntzatik hasita, ezinbestekoa dela aitortzen duten artikulutik atera dudana: “Agresibitatea mundua ezagutzeko, besteengana zuzentzeko eta norbere burua sendotzeko ezinbesteko bizi-indarra da. Beste aldaera bat ere izan dezake, ordea: gehiegizko agresibitate edota biolentzia giza ezagutzen dena” (2017). Beraz, agresibitatea izaki bizidun guztiok dugun bizi-indarra da, hainbat modutan adierazi dezakeguna; eta gehiegizkoa denean, biolentzia bezala definitzen dugu; hau da, kaltea egiteko intentzioa dagoenean. Dena dela, izaki bizidunen erlazonatzeko oinarria baldin bada, gorputz hezkuntzan ezinbesteko presentzia izan behar duela esan behar dugu, hori kontrolatzeko gai izateko.

2.2. BIOLENTZIA KULTURAN

Biolentziarekin jarraituz, gizartean duen konnotazioaz arituko naiz, historian zehar aditu desberdinek diotena gehituz. Hasteko, Sigmund Freudek esandakoa berreskuratu nahi dut; berak baieztatu zuenez, giza-lotura guztiak elkarrekiko agresibitatearen ondorio dira eta kulturak erlazio horien atzean dagoen agresibitate-manifestazio irrikak kontrolatzeko ardura du (Zuluaga, 1993: 97-100). Hau da, gizakiok ditugun erlazio guztiek agresibitate-maila jakina daramate oinarrian, baina kulturalki barneratuta ditugun aginduek, estandarrek eta baloreek agresibitate horren gehiegizkoa mugatzen dute, gogo-indarra eta irrika kontrolatzeko gaitasunari erreparatuz. Ikuspuntu hau, desio biolento edo bortitzen inguruan aritzerakoan defendatzeaz gain, desio sexualei erreparatzerakoan ere jorratu zuen. Gizakia desio eta nahi hauek kontrolatzeko gai denez gero, kulturalki honen errepresentazio moldatuak egiteko beharra du: ez da existitzen gizarterik biolentziatik ihes egin dezakeenik. Kulturaren funtzioa biolentziaren espresioan aldaketak egitearena da, bizikidetasun soziala posible egiteko, gatazkaren desagertzea suposatzen ez duena (Freud, 1930: 41-47). Are gehiago, gure gizartean gogo-indar honen kontrola hain garrantzitsua denez, gure hezkuntza-sistemaren barruan dago Heziberri 2020-ren bitartez, norberaren motibazioa eta gogo-indarra kontrolatzeko helburua proposatu baitzuen (Eusko Jaurlaritzak, 2016).

Kulturak finkatzen dituen jarrera estandarrei helduz, distantziaren kontzeptua agertzen da, askotan hau izanik gure agresibitate-maila irudikatzeko modurik argiena. Izan ere, kultura desberdinak aztertuz, jokatzeko eta erlazionatzeko distantzia guztiz desberdina dela antzeman dezakegu. Honetan oinarrituz, Edward T. Hall adituak (1966) distantzia proxemikoaren banaketa egin zuen, gure burua erreferentziatuz hartuz, lau distantzia desberdinez: intimoa (40cm-tik behera), pertsonala (120cm-tik behera), soziala (3,6m-tara ailegatzeko dena) eta publikoa (3,6m-tara baino haratago dagoena). Hauek, kulturaren arabera aldatzen dira, baina gertakizun pertsonalen arabera ere, ez da pertsona guztietan betetzen, guztiok berdinak ez garen heinean. Hala ere, agresibitate-maila altuagoa dela esan dezakegu pertsonarengandik gero eta hurbilago egonez gero. Hau da, norbaiten espazio pertsonalera edo intimora hurbiltzekotan, agresibitate handiagoa adieraziko genuke, eta agresibitate hori gehiegizkoa edo bortitza izanez gero, biolentzia izatera pasatuko litzateke (2005: 139). Horregatik, haurtzarotik honen inguruko kontzientzia hartu beharko genuke.

Distantziaren kontrolari buruz, argi dagoenez, gorputz hezkuntzan etengabe erregulatu beharreko faktorea dela errekonozitu dezakegu. Honen inguruan, Pierre Parlebasek (1988: 74-80) “Konfrontazio motorreko distantzia” fenomenoaz azpimarratzen du, honen barnean “karga-distantzia” eta “guardia-distantzia” desberdintzen. Konfrontazio motorreko distantzia honek bi aurkarien arteko konfrontazio zuzeneko unearen distantziari egiten dio erreferentzia, kirol bakoitzak berea duen heinean (Jiménez, 2012: 9-10).

Parlebasen hitzekin jarraituz, karga- eta guardia-distantziak aztertzeraz pasatuko naiz. Izatez, konfrontazio motorreko distantzia hobekien azalarazten duten kirolak aurkaritza zuzenekoak dira, beraz, guardia-distantzia ulertzeko, hurrengo banaketa proposatzen du berak:

- Distantzia nulua duten kirolak: etengabeko kontaktua eskatzen dutenak (Kanariar borroka, Judoa edo Jiu Jitsu Brasildarra).

- Distantzia mugatua duten kirolak (metro bat baino gutxiagokoak direnak): aurkariak hurbileko espazioa hartuz (boxeo edo karatea).

- Erdiko distantzia duten kirolak (hiru eta bost metro artean ematen direnak): aurkaritza arma baten bitartez ematen denean (sablea edo makila).

- Distantzia handia duten kirolak: bost metro baino gehiago daudenean bata eta bestearen artean eta normalean sarea erdian aurkitzen denean (tenisa, badmintona edo padela).

Karga-distantzia aztertzeraz asmoarekin, lankidetzaz-aurkaritza kirolak hartu ditzakegu erreferentziatzat eta beste lau kategoriaz desberdinetan banatzeko aukera zabaltzen digu Parlebasek:

- Distantzia ia nulua eta kontaktu ingurutzaila duten kirolak: rugby-a, adibidez.

- Distantzia mugatua eta baimendutako kontaktua duten kirolak: futbola edo eskubaloia.

- Erdiko distantzia eta kontakturik ez duten kirolak: saskibaloia, adibidez.

- Distantzia handia eta sarea duten kirolak: tenisa bikoteka edo volleyball-a.

Aurreko datu guzti hauen inguruan Parlebasek egindako analisisiek (1987), kirol desberdinak praktikatzeko orduan, noski, hurrengo ezaugarriak eskaintzen dizkigute: hasteko, kirol kolektiboei erreferentzia eginez, ahalbidetutako espazioa gero eta handiagoa izanez gero, parte-hartzaileek gero eta hurbilago jarduten dute eta talkak gero eta biolentoagoak edo bortitzagoak dira. Aldiz, aurkaritza zuzeneko kiroletan (bakarkako duelo simetrikoetan, zehazki), ahalbidetutako espazioa gero eta handiagoa izanik, parte-hartzaileak gero eta gehiago urruntzen dira eta haien ekintzak bortitzagoak dira soilik hurbiltzerakoan.

Beraz, karga-distantzia ematen den kiroletan, ekintza bortitzak gertatzen dira parte-hartzaileek talka egiterakoan eta are bortitzagoak dira espazio zabala ematekotan. Hau da, gero eta espazio gehiago eduki, jokoak biolentzia maila handiagoa izango du. Bestalde, guardia-distantziari helduz, hurbilago aritzen diren heinean, hau da, kontaktua etengabekoa denean, agresibitate-maila behera egiten du, urrun dauden heinean ekintza bortitzagoak egiten dituztelarik.

Talkarekin edo kontaktuarekin jarraituz, agresioak ager daitezkeela aipatu behar dugu; eta hauek ere hainbat motatakoak izan daitezke. Hasteko, legezkoak eta legezkoak ez direnak aurkitzen ditugu: legezko gehienak motorrak izanik eta legezkoak ez direnak jarrera eta ekintza biltzen dituztelarik. Horrela, legezkoak probokazioa, larderia, presioa, karga eta abarrekoak dira, agresibitate-maila nahiko altua dutenak, baina ez dutela bestea mintzen edota aurkariari kalterik egiten, oztopatu bakarrik. Berriz, legezkoak ez direnak arauak apurtzen dituztenak edo errespetu faltak egiterakoan agertzen direnak dira: arropatik tiratu edo hori bera nahita apurtu, iraintzea, arauetatik kanpo jotzea, eta abarrekoak (Collard, Frigout & Laporte, 2012: 67-84).

Aditu hauek ere, banaketa horrekin batera, aurkaritza zuzena praktikatzekoan jarrera biolentoak edo agresibitate maila altukoak direnak jaitsi egiten direla aipatzen dute. Horregatik, Frantziako hainbat kartzelatan, Karatea praktikatzen hasi ziren: biolentzia kontrolatzeko eta presoak errazago gizarteratzeko. Esku-hartze horren ondoren, karatea praktikatu zuten presoek jarreran, aldaketa nabariak antzeman zituzten, karatea praktikatu ez zutenek, biolentoagoak ziren haien ekintzetan eta arazo gehiago izan zituzten berriro gizarteratzeko.

2.3. ARTE MARTZIALAK

Honen inguruan aztertzen jarraitzeko, guardia-distantzia jorratzen duten kirolak aztertzer pasatuko naiz: arte martzialak eta borroka-kirolak, hain zuzen ere; hauen atzean dauden funtzionamendua, baloreak eta helburua, zehazki.

Hasteko, arte martzialak zer diren jakitea beharrezkoa dela uste dut, hauen definizioa emanaz: “arte martzial terminoak norbere burua defendatzeko edo bestea menderatzea helburu bezala duten praktika tradizional kodifikatuei egiten die erreferentzia. Praktika hauek teknika jakinak jarraitzen dituzte, kaleko borrokatik edota biolentzia fisikotik aldentzen direlarik. Izan ere, arte martzialek teknika-sistema koherentea jarraitzen dute, bizitza-filosofia eta jokaera-kodea izateaz gain; guzti honen eraginkortasuna antzinatek frogatuz. Gaur egun, hainbat arrazoiengatik praktikatzen dira: osasuna, norbere buruaren defentsarako, garapen pertsonalerako, diziiplina mentala garatzeko, jarrera eta izaera osatzeko edota auto-konfiantza gehiago izateko” (Clements, 2006: 2).

Aurreko definizio honen bitartez, arte martzialen helburu nagusiak norbere burua defendatzea eta bestea menderatzea direla ikusi dezakegu. Horrek guztia, aurkariari kalterik ez egitea oinarri du, teknika jakinak erabiltzen direlako mugimenduen gaineko kontzientzia izanik. Gainera, aurretik emandako definizioan filosofia jakina, jokaera kodea eta hainbat ezaugarri onuragarri biltzen dituztela irakurri dezakegu.

Bestalde, borroka-kirolei buruz mundu-mailako hiztegietan dagoen definizioari helduz, teknika jakinen azterketa ez dagoela antzeman dezakegu, baizik eta askotariko kolpe-konbinaketak eta arauen bete-beharra; kolpe eta ekintza desberdinak debekatuz aurkariaren segurtasuna bermatzeko: “lehiaketa-kirolak dira zeinetan bi aurkari dauden eta, modalitatearen arabera, arauak aldatzen diren. Hauen helburua, txapelketa edo borroka irabaztea da gorputzeko atal desberdinak erabiliz (baimenduak diziiplina bakoitzean). Adibide moduan boxeoa, *kickboxing*-a eta *Muay Thai*-a dira” (STANDS4, 2019).

Beraz, bien kasuan aurkariaren ongizatea bermatu nahi dela antzeman dezakegu, bai teknika jakinekiko kontzientzia hartuz, baita kolpeen mugaketaren bidez. Nahiz eta guardia-distantzia apurtzerakoan agresibitate handiko karga eman, ez da biolentziarik agertu behar. Aurretik irakurri

dugunez, biolentzia kalte egiteko intentzioan egongo litzateke; beraz, erabilera egokia egiteko aipatutako bi praktika hauetan emandako diziplina eta jarreraren ezaugarria garatzea ezinbestekoa da.

Ildo beretik, ikerketa-lan honetan nik praktikatutako arte martzial hibridoa erabili nahi izan dut. Arte martzial hibridoak edo berriak XX. mendearen amaieran sorturikoak dira, beste arte martzial tradizioaletatik moldatutakoak, adibidez: Israelgo *Krav-magá* militarra, Bruce Lee-ren *Jeet Kune Do-a*, *Jiu Jitsu Brasildarra* (nik erabilitakoa) edota *AMM: arte martzial mistoak* (Green & Svinth, 2010: 52, 97, 202, 306). Orain, nik praktikatutako Jiu Jitsu Brasildarraren funtzionamendua aztertuko dut.

2.4. JIU JITSU BRASILDARRA

Jiu Jitsu Brasildarraren inguruan hitz egiteko, John Danaher (1996) profesionalak (Jiu Jitsu Brasildarreko gerriko beltzak eta maisuak) “Renzo Gracie” akademiako web orrian idatzitakoan oinarrituko naiz. Arte honen deskribapen orokorra hurrengoa da: Jiu Jitsu Brasildarra heltzetan eta eusketetan oinarritutako arte martziala da eta honen helburu nagusia aurkaria menderatzea da, horren errendizioa bilatuz, giltzadurak edota estrangulamenduak erabilia. Gainera, kontrol hori lurrean askoz errazagoa denez, aurkaria lurrera botatzea bilatuko da, orduan hobeto maneiatzeko, ahalik eta kalte gutxiena eginez eta bere mugimendua guztiz mugatzeko.

Bere hitzetan gehiago murgilduz, hurrengoa aurki dezakegu: “Jiu Jitsu promotes the concept that a smaller, weaker person can successfully defend against a bigger, stronger assailant by using leverage and proper technique”. Izan ere, ideia hau Jiu Jitsu Brasildarraren atzean dagoen interesgarriena izan daiteke, guztion aukera berdintasunaren inguruan hitz egiten duelako. Honek, arte martzialak defendatzen duen kontzeptua adierazten du: ahulagoa den pertsona, indartsuagoa den baten aurrean era arrakastatsuan defendatzeko gai izango da; betiere, teknika, indar eta aplikazio egokia erabiltzen baditu.

Beraz, aurreko hitzetan adierazten denez, helburua ez da kalterik edo minik egitea, aurkaria menderatzea eta egoeraren kontrola mantentzea baizik. Gainera, biolentziaren kontra egiten duen ideia honi indarra emateko eta zehaztasun garrantzitsua gehitzeko, Tejero eta Balsalobre autoreek (2011: 19) ateratako ondorioa gehitu nahi dut. Haien esanetan, arte martzialen praktikak biolentzia-

tasan eragina izateko faktorerik garrantzitsuenetarikoa praktika-denbora da. Izan ere, denbora hori luzeagoa izanez gero, orduan eta biolentzia ekiditeko aukera gehiago izango ditugu. Hau da, arte martzialen baloreak barneratzeko, denbora behar dugu, ez dira bi edo hiru astetan bereganatzen.

Horrez gain, beste autore batzuk (Ali, Emrah, Fahri, Necmettin eta Gülcan, 2010: 202-207) beste ideia interesgarri bat adierazten dute: arte martzialen eraginkortasuna lehiakortasun ezari esker dela aitortzen dute. Hau da, “Zen” filosofia jarraituzekoan, benetako balore-lanketa ematen da eta ez lehiaketetan parte hartzerakoan. Izan ere, “Zen” filosofia honek, norbere burua garatzeko praktika direla defendatzen du, hobeagoa izateko premiarekin (Funakoshi, 1986), baina helburu moduan txapelketetan parte hartzea izan gabe. Horregatik, Gichin Funakoshik, “karate modernoaren aita” bezala ezagutzen dugunak, “bizi-estilo” moduan deskribatzen du eta ez “kirol” moduan.

Aipatutako onurak ez ezik, onura fisikoak ere aztertu behar ditugu; gorputz hezkuntzako arloa lantzen dugulako eta honetan arlo motorrak garrantzia nabarmena hartzen duelako. Izan ere, arlo hau haurren garapen integrala lortzeko ezinbestekoa den heinean, arte martzialen bitartez haurren garapenean eragina duten faktoreak aztertzeko, Sánchez-ek eta González-ek idatzitakoari erreparatu diot (2014: 138-142). Hauek, gaitasun propiozeptiboaren eta kate-haptikoen inguruan hitz egiten dute. Lehenengoak, gorputz atal desberdinetan gertatzen ari dena errekonozitzeko gaitasuna deskribatzen du, eta horren aurrean erreakzionatzeko gaitasunaren garapena, noski. Bigarrenek, egoera orokorraren analisia egiteko gaitasunari egiten dio erreferentzia, hau da, gertatzen ari den guztia errekonozitzeko gai izatea kanpotik ikusiko bagenu bezala; honetan ere, erantzun posibleak emateko aukera zabalduz.

Bi hauek agertzeko, distantzia nulua beharrezkoa da, Jiu Jitsu Brasildarrean ematen den egoera, zehatz-mehatz. Honetan, ikusmena asko mugatzen da sarritan, bestearengandik hurbilegi egotegatik gehienetan, bakarrik zentzumen haptikoari eta propiozeptiboari lekua utziz. Beraz, aipatutako bi gaitasunen garapena beharrezkoa da egoera kontrolatzeko, beste egoera gehienetan ematen ez dena. Gaitasun hauek haurren garapenean garrantzia handia hartzen dute orientatzerako eta ezusteen aurrean erreakzionatzeko orduan; normalean ikusmenaren bitartez gure burua gidatzen uzten dugulako eta batzuetan hori posible ez delako. Gainera, etengabeko ezusteak eta zalantza aurkariarengan izaterakoan erreakzioak eman behar dira, momentu oro prest egotearen beharra sortzen duena (Beilock, 2011). Horrez gain, interesgarria izango litzateke ere ikasgelan hauritsuak

izatekotan, hauekin ere landu daitekeelako eta haientzat kate-haptikoek eta gaitasun propiozeptiboak izugarrizko garrantzia dutelako.

Ildo beretik, Jiu Jitsuko eliteko profesionalak gaitasun horren garapenari ematen diote garrantziarik handiena, aurkariarekin dagoen erlazioa oso interesgarria eginez. Adibidez, Jiu Jitsu Brasildarreko maisuak, Rickson Gracie (1999), “Choke” dokumentalean hurrengo aitortzen du: “el aspecto más interesante del Jiu Jitsu es la sensibilidad hacia tu oponente, el sentido del tacto, el peso, el momento de fuerzas, la transición de un movimiento a otro y el abanico de posibilidades que eso te ofrece. Eso es lo asombroso del tema”.

Aurreko guztia ikusirik eta haurtzarotik bizitzako esperientziengatik, ikasgelan lantzea nahi izan nuen, hurrek sentitzen zutena ikusteko eta benetan jardura biolento moduan hartzen duten aztertzeko. Hurrengo orrialdeetan aurkituko duzuen lanaren garapena horretan oinarritzen da; lehenik eta behin, helburuak zehaztuz; eta ondoren, erabilitako metodologia eta lortutako emaitzak adieraziz.

3. HELBURUAK

Aurreko “sarrera” eta “justifikazioa” ataletan aipatu dudanari helduz, lan honen ardatza finkatu nahi izan dut helburu zehatzak planteatuz. Helburu hauek, gaiari buruzko ikerketan eta lanketan oinarritu ditut; biolentzia, aurkaritza, arte martzialak eta hauek inguratzen dituzten balioak, emozioak eta abarrekoak barnebilduz. Hau guztia, gizartean dauden iritzi desberdinak kontuan hartuz eta jorrapenik egokiena egiten ahaleginduz.

Esan dudan moduan, ikasleen hezkuntza integrala eta biolentziarekiko erlazio egokia izan dut buruan denbora oro, berebiziko garrantzia duen arloa delako eta gizartean duen konnotazioa lar zalantzarria dela uste dudalako, askotan gatazkatsua izan daitekeena. Izan ere, gure gizartea biolentziaz beterikoa den gizartea dela aitortzen dute aditu askok, biolentzia bera gizarteak sortutakoa den heinean (Palomero eta Fernández, 2001: 19-38) eta besteenganako etengabeko errespetu faltak egitean areagotzen duguna. Carlos Cameanen aburuz, adibidez, erlazio interpersonalen ikerketen zuzendaria den Austral Unibertsitatean: “Hay muchas formas de ejercer la violencia, pero la violencia es una sola y se manifiesta de una sola manera: falta de respeto hacia el otro” (Camean, 2015) eta beti era negatiboan eragiten gaituena (García, 2017).

Nahiz eta hainbat helburu garrantzitsu izan, argi izan dut egiaztatu nahi dudana zer den eta helburu nagusi bakarra azpimarratu nahi izan dut. Horrez gain, hiru azpi-helburu desberdin ditut, arloaren barneko egoera zehatzean oinarritzen direnak, hurrengo lerroetan irakurriko duzuen moduan.

3.1. HELBURU NAGUSIA

Lan honen oinarri moduan jarri dudana helburu nagusia biolentziaren ingurukoa da. Hau planteatzerakoan, biolentziaren inguruko gizartearen ikuspegia eta pertzepzioa kontuan izan dut, arte martzialek eta borroka-kirolek horren inguruan sortzen dituzten aurreiritziak eta ideiak aztertuz eta horien kontra egiteko argudioak, alde positiboak eta onurak bilatuz. Hori guztia, hauren hezkuntza-prozesuan aurkaritza egoerek duten garrantzia adierazteko eta arte martzialetan eta borroka-kiroletan oinarritzen diren praktika desberdinak txertatzeko ideiari indarra emateko.

Beraz, aurreko ideia hauek guztiak helburu laburrago eta zehatzagoan bateratzeko intentzioarekin, nire helburu nagusia horrela definiturik aurkezten dut:

Gaur eguneko biolentziaren pertzepzio sozialaren lanketa egitea, arte martzialen eta borroka-kirologian aurreiritzien kontra eginez eta hauek biolentziaren edo gehiegizko agresibitatearen aurka ekar ditzaketen onurak aztertuz hezkuntza-prozesuan zehar besteenganako errespetua txertatzeko.

3.2. AZPI-HELBURUAK

Helburu nagusiarekin batera, hainbat ideia eta intentzio ere izan ditut, baina batez ere, gorputz hezkuntzarekin erlazio zuzena dutenak kontuan hartu nahi izan ditut, lantzen ari garen arloa delako. Izan ere, ideia hauek ekintza motorraren gizarte-egiturekin dute zerikusia (Parlebas, 2001: 427), aurkaritza zuzenean oinarrituz eta borondate, motibazio eta nahiarekin erlazionatuz, Heziberri 2020 dekretuan aipatzen diren ezaugarriak direlako, edukien bigarren multzoan bilduta daudelarik (Eusko Jaurlaritzak, 2016).

Idea hauek kontuan izanik, azpi-helburu moduan izandatu nahi izan ditut ahalik eta hoberen laburtzeko asmoarekin eta hurrengoak desberdindu ditut:

Aurkaritza zuzenaren, arte martzialen eta borroka-kirol berrien onurak azalaraztea haurraren garapenaren lau arloei dagokienez. Hauek praktikatzearen bitartez, aipatutako onurak daudela baieztatzeko.

Aurkaritza-esperientziek emozionalki dituzten onurak aurkeztea, haurrek sentitzen dutenaren azterketa eginez.

Jarduerari dagokionez, motibazioa, nahia eta borondatea erregulatzea, jokabide etikoa garatzea, gogo-indarra eta esfortzua neurtzea eta diziplina eta baloreak lantzea. Hauek guztiak, praktikaren bitartez, gizartean errespetuz jarduten ikasten laguntzeko.

Aurrekoa era honetan egituratuz, lanaren ardatza argi zehaztu izana espero dut hurrengo orrialdeetan metodologiari eta lan egiteko erari heltzeko.

4. MARKO METODOLOGIKOA

Helburuak zehazturik daudela, lan egiteko metodologiari heltzeko garaia da. Atal honetan, lanaren atal praktikoa adieraziko dut, nire ekintza eta esku-hartze praktikoa sekuentzialki adieraziz, hasierako kokapena eginez, ondoren erabilitako tresna eta estrategia zehatzak azaltzeko.

4.1. KOKAPENA

4.1.1. Practicum III

Ikasitako gradua Lehen Hezkuntza izanik, Practicum I, II eta III egiteko aukera izan dut, eta hauetako bakoitza bizi heinean mota desberdinetako lanak egin ditut. Aurten, Practicum III-a eraman dut aurrera, non nire gaitasunak praktikoki erabili izan behar ditudan nire burua etorkizuneko gorputz hezkuntzako irakaslearen lan-rolean sarturik ikusi dudana. Izan ere, irakasleek bere ikasketa prozesuan ez dute bakarrik eduki eta jakintza teorikoak izan behar eta horregatik unibertsitateko graduko planteamenduan praktika-aldiak proposatzen dira. Horregatik praktika

dekanordetzak hurrengo xedeak proposatzen ditu: *ikastetxe batean ezar daitezkeen jarduerak eremuak hobetzeko proposamenetan parte hartzea, 6-12 urteko ikasle-taldean elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak erregulatzea eta praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko* (Praktika Dekanordetza, 2016).

Xede hauen inguruan hausnartuz planteatu nuen nire esku-hartze didaktikoa; betiere, gradu amaierako lan honetan landu nahi izan dudana gaian oinarrituz: biolentzia, arte martzialak/borroka-kirolak eta aurkaritza. Horrela, 2018ko abendutik 2019ko urtarrilera, aurkaritza zuzenean oinarritutako unitate didaktikoa diseinatu nuen, pixkanaka Jiu Jitsu Brasildarraren hastapenera ailegatu arte: estrangulamenduen eta giltzaduren bidez era oso eraginkorrean funtzionatzen duen arte martzial berria (Gracie Barcelona, 2016), marko teorikoan azaldu dudana. Honen bitartez, aurkaritza zuzenean oinarrituz, emozioen, jokabidearen, motibazioaren eta gogo-indarraren kudeaketa jorratu nahi izan nituen; hots, haurrek landu beharreko edukiak Heziberri 2020-ko 236/2015 dekretuan (edukien bigarren multzoan, zehazki).

Ikerketaren laginarekin eta partaideekin hasi aurretik, nire intentziora boxeo hastapena ere egitea zela aipatu behar dut, baina arazoak izan nituen bai materialarekin, baita ikastetxearen pentsaerarekin ere, biolentziaren inguruan gizarteak dituen ideien eta aurreiritzien inguruan hausnartzera ere bultzatu ninduen. Hala ere, aurretik aipatu dudana moduan, Jiu Jitsu Brasildarra haurrekin elkarbanatzeko aukera izan nuen eskolako tatamia erabiliz.

4.1.2. Partaideak

Partaideen ezaugarri zehatzekin sartu baino lehen, nire Practicum III-ko esperientziaren barruan kokatuko ditut. Izan ere, nire praktikaldia lehen hezkuntzako hirugarren mailako ikasgela batean eman nuen, talde batekin bereziki, beste hiru taldeekin ere gorputz hezkuntzako saioak aurrera eramanez. Eskolak, ez du Heziberri 2020-n proposatzen den zikloen banaketa jarraitzen eta oraindik hiru ziklo desberdintzen ditu; nire kasuan, eskolako bigarren zikloan egin dut lan, hau da, hirugarren eta laugarren mailan.

Practicum III honetan ere, tutore bakar batekin egon izan naiz, Kepa izenekoa, saio guztietan nirekin batera egon dena, baina soilik behatzaile-lanak egiten, niri lan egiteko askatasun osoa eskainiz eta ikasgelen kudeaketa nire eskuetan utziz; betiere, behar izatekotan niri lagunduz.

Ikasleei dagokienez, hirugarren eta laugarren mailako 94 ikasleek osatu dute lagina, lau ikasgela guztira izanik, bakoitza bere ikasle eta ezaugarri propioekin. Honek esperientzia aberatsa eskaini dit unitate didaktikoa ikasle desberdinekin aurrera eramanez; eta praktika barruan gertatzen diren ustekabeak daudela egiaztatuz, hauen aurrean era egokian erreakzionatu beharra dugula antzematera eraman nauena.

Aurrekoa laburtuz, irakasle bakar baten laguntzarekin eta lau ikasgela desberdinekin eraman dut lana aurrera, guztira 94 ikasle izanik. Hauen inguruan ezaugarri zehatzagoak emateko, hurrengo taula sortu dut (izenak ematerakoan, anonimatua errespetatuz):

1. taula: partaideak eta haien ezaugarriak.

Partaideak	Partaideen ezaugarriak
Kepa (irakaslea)	25 urte. 3.A taldeko tutorea eta gorputz hezkuntzako irakaslea. TAFAD, Lehen Hezkuntzako Gradua (gorputz hezkuntzako espezialitatea) eta Psikopedagogia Masterra ikasirik, irakasle-lanean hasiberria dela esan dezakegu. Hala ere, haurrekin lan egiteko abilezia handia duena eta ideologia zabala eta malgua. Motibatuta eta irakaskuntzarekiko ardura aurkezten duena. Beti laguntzeko prest.
LH 3.A	22 ikasleek osatutakoa eta tutorea Kepa duena. Haiekin eman dut denbora gehiena ikasgela eta gorputz hezkuntzan. Hartutako konfiantzak gehienetan gauza positiboak ekarri ditu lanari erreferentzia eginez, baina askotan gehiegizkoa hartu dute eta jarduera oztopatua ikusi izan dut jarrerari dagokionez.
LH 3.B	22 ikasle. Practicum I-ean elkar ezagutu ginen (LH-ko lehenengo mailan). Horrek, konfiantza eta mirespena sentitzera eraman izan nau ikasleekiko. Aipatzekoa ikusten dut ikasle bereziki agresiboak daudela ikasgela honetan, material mugikariei beldur handia dien neska batekin batera.
LH 3.D	24 ikasle. Nirekiko mirespen handia sentitu izan dut beti ikasgela honetan; errespetu handia eta galderak nire kirolaren inguruan. Beti lan egiteko prest; giro oso alaia, gogotsua eta langilea aldi berean.
LH 4.B	26 ikasle. Praktikaldi horretako nagusienak eta ikasgelarik handiena kopuruari dagokionez. Eskola-kirolean hasiberriak dira eta hainbat ikasleek Judoa hautatu dute; nik proposatutako saioetan laguntza handia suposatu duena baloreei eta diziplinari dagokienez. Jarrera desberdintasun handia nabaritu izan dut nirekiko: erlazio “hotzagoa” edo “urrunagoa”.

4.2. IKERKETARAKO TRESNAK

Gradu amaierako lan honetarako aurrera eramandako ikerketa kualitatiboa izan da. Nahiz eta datu kuantitatiboak askotan eman, datu-bilketaren ondorioz, arlo kualitatiboak aztertzean oinarritu dut biolentziaren egoeraren inguruan informazioa ateratzeko eta hori aurkaritzarekin, arte martzialekin eta borroka egoerekin lotzeko asmoarekin.

Hurrengo orrialdeetan, ikerketa honetan erabilitako tresnak aurkeztuko ditut, bakoitzarekin lortu nahi izan dudana plazaratuz, tresna bakoitza zertan oinarritzen den azalduz eta nik nola jardun dudana deskribatuz. Horrela, ikerketaren oinarriari indarra eman nahi izan diot, hiru tresna erabilia triangulazioa sortzeko: behaketa parte-hartzailea, gertaera adierazgarriak eta emozioak aztertzeko galdetegia.

4.2.1. Behaketa parte-hartzailea

Hasteko, Practicum III-an zehar gehien erabilitako tresna behaketa parte-hartzailea izan da, zeinetan nire burua ikasleekin jarduten murgildu izan dudana. Izan ere, behaketa parte-hartzailea horrela definitu genezake:

la observación participante es el método por el cual el investigador participa en la vida de una comunidad o grupo, mientras hace observaciones sobre el comportamiento de los miembros (Gibbs, 2012: 193).

Horrela, ikasleen jarrera desberdinak hurbiletik antzeman ditut, ikuspegi osoagoa lortuz. Izan ere, jarrera guztiak erabilgarriak dira saioa era egokian kudeatzen ari garen ala ez ikusteko. Are gehiago, parte-hartzeak, era eraginkorragoan ikertzea ahalbidetuko digu: “el etnógrafo nunca es uno más en el grupo que estudia, pero tiene que intentar integrarse lo máximo posible para realizar adecuadamente su investigación” (Álvarez, 2008: 4).

Horrekin jarraituz, parte hartzea eta ikertzea batera egin ditzakegun jarduerak dira haien arteko elkarreragina ahalik eta onena izateko. Hamersley-k eta Atkinson-ek planteatzen duten moduan:

El etnógrafo tiene que "vivir en dos mundos simultáneamente", el de la participación y el de la investigación. El mundo de la participación implica tratar de "ser uno más" en el grupo, tratando de interferir lo menos posible en el modo de vida de los sujetos estudiados. El mundo de la investigación supone, además de trabajo de despacho, no olvidarse de que uno es investigador y tiene que asumir cierta distancia con aquello que observa (2005: 130).

Beraz, ahalik eta hurbilen egoten saiatu naiz ikasleen jarrerak, emozioak, erreakzioak eta nahiak testuinguru errealean ezagutzeko. Haiekin batera jarduteak eta adi egoteak datuak edo gertaerak momentuan bertan biltzeko mugatu naute, baina behaketa askoz esanguratsuagoa izatea ondorioztatu dute, ondoren idazteko eta hausnartzeko.

Horrez gain, aipagarria da behaketa parte-hartzailea aurrera eramaterakoan ez nituela hipotesi zehatzik izan, baizik eta behaketa zabala eta moldagarria egin nahi nuela ahalik eta egoera eta ezaugarri gehienak ikusteko; geroago datuak ateratzeko eta hausnarketak egiteko. Aipatutako hipotesien planteamendu ezari helduz, ikerketaren inguruko adituek horrela ere adierazten dute: “en un principio el investigador no tiene delimitadas y planteadas las diversas hipótesis a confirmar o desmentir, (...) esta observación participante también se caracteriza en un primer momento por ser flexible y abierta (Buendía, Colás & Hernández, 1998: 255). Hain zuzen ere, nire ikerketa guztiz zabalik utzi nuen hasieran eta helburuak zehaztu ahala, gertaera jakinetan jarri izan dut arreta berezia.

4.2.2. Gertaera adierazgarrien bilduma

Curriculum ezkutuko gaiak bildu nahi izan ditut gertaera adierazgarrien bitartez, hau da, nire arreta deitu duten gertaeren bilduma eginez hurrengo gaien inguruan: sexismoa, lankidetzanahia, autoritatea, errekonozimendua eta emozioak. Izan ere, curriculum ezkutuak izugarrizko eragina duelako haurren garapenean nahiz eta ofiziala edota esplizitua ez izan. Bere izenak aitortzen duen moduan, “ezkutuan dago” eta aipatutako gaiak era batean edo bestean landurik, testuinguruaren arabera, haurren garapenean eragina desberdina izango da, nahiz eta curriculum ofizialeko eduki berdinak landu (Tinning, 1992: 143-153). Definizioz, horrela deskribatu dezakegu:

Está formado por los conocimientos, clasificaciones, valores, actitudes, normas y creencias que se adquieren mediante la participación en procesos de enseñanza y aprendizaje en todas las interacciones diarias en las aulas. Estas adquisiciones nunca se explicitan como metas educativas intencionales (González, Río, Rosales, 2005: 28).

Curriculum ezkutuak testuinguruaren eragina jasaten duela jakinik, Acaso eta Nuere adituen hitzak hartu ditut erreferentzia moduan gure inguruan dagoen egoera ezagutzeko asmoarekin:

En todos los niveles de la educación formal en España lo que se transmite a través del curriculum oculto son conocimientos que asientan las bases del sistema patriarcal capitalista y que perpetúan el actual reparto asimétrico del poder mediante la defensa de: un sistema de reparto del poder totalitarista

frente a un sistema de reparto del poder democrático, el predominio del género masculino sobre el femenino (...) (2005: 208-209).

Hala ere, bakarrik esanguratsuenak hartu ditut lan hau gauzatzeko; lana honen xedearekiko azpimarragarrienak eta aipagarrienak direla ikusi dudalako. Gertaera hauek guztiak, behaketa parte-hartzailearen ondoren eta hausnarketaren bidez bildu ditut, gertaerak egunaren amaieran zerrendatuz eta ondoren hainbat galderari erantzuna emanez. Honekin batera, gradu honen azkeneko ikasturtean ikasitako teknika dela esan behar dut, “Gorputz Hezkuntza eta bere didaktika II” ikasgaiari jorratutakoa.

Izan ere, aurreko paragrafoan esandakoari helduz, argi utzi nahi dut ezinezkoa egin zitzaidala behaketa parte-hartzailea nahi izan nuen moduan egitea oharrak hartu bitartean. Beraz, gertaera adierazgarrienak gogoratu, zerrendatu eta esanguratsuenak hausnarketaren bidez garatu izan nituen. Hau guztia, eguna amaitutakoan egiten nuen, jardunaldia gogoratuz eta aipatutako prozesua eginez. Horrela, ondorioak eta irakaspenak lortzen nituen, hurrengo saioetan aplikagarriak zirenak eta esperientzia aberatsagoa edukitzeko baliagarriak izan zirenak.

Gertaerak zehazki deskribatzeko, hurrengo atalak desberdindu nituen: lehenik eta behin gertaera laburki deskribatuz, ondoren antzeman izan nituen emozioen deskribapena gehituz; egoera horri nola aurre egin nion edo nire portaera deskribatzea ere beharrezkoa izan da haurrengan izan duen eragina aztertzeke (jokaeraren emaitza); eta azkenik, izandako dilemak eta kasuaren irakaskuntza laburbilduz. Horrela, sei atal dituzten gertaera adierazgarriak biltzea lortu izan nuen (adibidea ikusteko, eranskinetara jo: 1. eranskina).

4.2.3. Galdetegia

Ikerketarako hirugarren tresna moduan, galdetegi bat erabili dut, haurren emozioak aztertzeke galdetegia, hain zuzen ere. Galdetegiak, aurkaritza/borroka egoerek sortarazten dituzten emozioak ditu aztergai bi arrazoi nagusik bultzaturik: batetik, genero rolerik definitzen duten egoera aztertzea; eta bestetik, gatazkek sortarazten dituzten emozio negatiboak.


Galdetegi hau ez dut nik asmatu, Lleidako unibertsitateko adituek (Bartzelonako, San Jorgeko eta Portugaleko beste unibertsitateetako adituekin batera) aurrera eramandako ikerketa hartu nuen erreferentziatzat (Jaqueira, Lavega, Lagardera, Coelho & Rodrigues, 2014: 71-90) eta

haiek egindako galdetegiko galderak euskaratu eta haurrentzako moldatu ondoren, nire Practicum III-ko ikasleei luzatu nien esperientzia honetan bizi izan zituzten emozioak aztertzeke eta benetan horrelako ekintzak biolentziaren barnean era gordinean sartzen diren ala ez antzemateko.

Izan ere, bizi izandako emozioen bitartez, haientzako gertakari biolentoak izan diren jakin nahi dut, biolentzia emozio jakinekin lotuz (haserrea, amorrua, errefusa edota beldurra). Horrez gain, generoaren arabera aldatetak dauden ala ez aztertzea ere erabaki nuen aipatutako adituen artikulua irakurtzearekin batera (Sáez, Lavega, Lagardera, Costes & Serna, 2014: 15-32), gaur egun oihartzun handiko gaia delako eta genero berdintasuna lehen hezkuntzan ere berebiziko garrantzia duelako. Gainera, haien arteko desberdintasunak esparru askotan nabariak direla esan dezakegu, orain dela bi urte aurkitutako emaitzetan oinarrituz; hala nola, agresibitate-maila kirol-praktikan (Angulo, Caño, eta Elorza, 2017).

Galdetegi honen emaitzak hurrengo atalean zehaztuko ditut, hauen trataera eta interpretazioarekin ere hasteko. Baina horren aurretik, “Microsoft Office Excel” programa informatikoa erabili dudala aipatu nahi dut, datuak prozesatzeko eta kalkuluak egiteko taula-orrien bitartez funtzionatzen duen programa eta lan hau gauzatzeko ezagutzen dudana (begiratu 1. irudia).

1. irudia: “Microsoft Office Excel” kalkulu-orriaren adibidea.



Horrela, emozio desberdinen zerrenda gordetzeaz gain, datuak hurrenez hurren pilatzeko eta grafikoak sortzeko aukera izan dut, emaitzak adierazteko era bisuala eta aberasgarria den heinean.

Beraz, hiru tresna hauen bitartez, triangulazioa sortu nahi nuen. Atalaren hasieran aipatu dudan moduan, aurrera egiteko oinarri sendoa finkatzeko eta ikerketa ahalik eta gehien zehazteko asmoarekin, datuak bilduz, interpretatuz eta grafikoki nahiz idatziz emaitza moduan aurkeztuz. Hurrengo orrialdeetan, arlo etikoaren ondoren, aipatutako emaitza hauek aurkituko dituzue.

4.3. ARLO ETIKOA

Jokatzerako orduan, etika irizpide pertsonalak jarraitu ditudanez, hauek plazaratzea beharrezkoa dela deritzot. Hauen artean, indarra hartzen duten hiru irizpideak hurrengoak dira:

Lehenik eta behin, partaideen izenak gordetzea: balizko izenak erabiliz irakasleei, ikasleei eta eskolari erreferentzia egiteko orduan. Horrela, anonimatu gordetzen saiatu naiz errealitatera ahalik eta gehien hurbiltzearekin batera.

Bigarrenik, ale bana ematea: bat tutoreari eta bestea ikastetxeari. Nire lana haien eskolan burutzea ahalbidetu didatela kontuan izanik, haientzat nire ikerketaren erabilgarritasuna adierazi nahi diet txostena entregatzearekin batera. Horrela, irakaskuntza-tresna moduan erabili dezakete gorputz-hezkuntzan aldaketak emateko; betiere, hobekuntza buruan izanik.

Azkenik, plagioaren kontra: ikerketa-lan hau nik egindakoa dela sinatzerakoan, beste norbaiten lana koptatu edo plagiatu ez dudala adierazten dut. Beste autore, aditu eta profesionalen lanetan oinarritu naiz idatzitakoa defendatzeko eta testu fidagarria izateko, noski, baina beti haien izena adieraziz horiek erabilitako aldi bakoitzean.

5. EMAITZAK

Emaitzak aztertzeko, aurreko “Ikerketarako tresnak” atalean egindako banaketan oinarrituko naiz, tresna bakoitzaren bitartez lortutako informazioa ordenaturik plazaratuz, ondoren ondorioak atera ahal izateko. Horrez gain, Practicum III esperientziari buruzko egin behar izan dudana txostena hartu eta birpasatu dut. Hasieran planteatutakoa (gorputz hezkuntzari dagokionez esperientzia gabe egindakoa) ikusteko, hausnarketak berriro irakurtzeko eta praktikan aurrera eramandakoarekin konparatuz emaitzak ere ateratzeko. Horrela, alde kualitatiboari sarrera emango diot erabilitako tresnekin sartzeko.

Arlo kualitatiboarekin jarraitzeko, bi lehenengo tresnen bitartez egingo dut, hau da, behaketa parte-hartzailearen eta gertaera adierazgarrien bildumaren bitartez. Honetan, irakasle (edo sasi-irakasle) moduan egonik ateratako emaitzak aurkeztuko ditut erabilitako bi tresna elkartuz: behatutakoa eta hausnartutakoa bateratuz.

Arlo kuantitatiboari helduz eta aurreko atalean esandakoa gogoraraziz, galdetegiarekin lortutako datuak kuantitatiboki aurkeztuko ditudala aipatu beharrekoa da, nahiz eta ikertzerako orduan kualitatiboak izan. Honen ostean, ondorioak ateratzeko orduan, datu kuantitatiboak ere kontuan izateko.

Beraz, tresna bakoitzarekin lortutakoa emaitzen atal baten bitartez adieraziko dut, banaketa antzekoa jarraituz eta emaitzetan ere ahalik eta aberastasun gehien lortzeko asmoarekin.

5.1. EMAITZA DIDAKTIKOAK

Atal hau garatzeko, Practicum III-ko txostenean oinarritu naiz, proposamen didaktikoa planteatutakoan egin nuena ikusirik eta praktikan eman zenarekin konparatuz. Izan ere, saioak aurrera eraman aurretik, planteamendu zehatza nuen buruan: egoera desberdinak irudikatu nituen, saioen arteko kohesioa eta jarraitasuna bilatuz aurkaritza jolasen bitartez, Jiu Jitsuaren tekniken eta jarreraren hastapena egitera arte. Horrekin, haurren borondate eta gogo-indarraren garapena eta kontrola bilatzen nituen.

Esku-hartze didaktiko honetan, Heziberri 2020-n azaltzen diren edukiak jorratu nahi izan nituen. Esan dudan moduan, borondatea eta motibazioa aipatzen dituzten edukiak dira, inplikazioa sustatu nahian norberaren gogo-indarra erregulatuz eta seguru jokatzuz (Eusko Jaurlaritza, 2016). Hauetan oinarrituz, ebaluazio irizpideak daude planteaturik ere, konpetentzia motorren barruan, zehazki; hortaz, errubrika sortu eta ikasleengan aurrerapenak ikusi nituen hasieratik amaierara arte; proposatutako esku-hartze didaktikoa egokia izan dela sinestera bultzatu ninduen. (Errubrikaren txantiloia aurkitzeko joan 2. eranskina ikustera).

Ikasleen aurrerapauso hauek emaitza positibotzat hartzen ditut, bai nire irakasle lanerako esperientzian, bai haurren garapenaren eta jarreraren; batez ere, gorputz hezkuntzan aritzeko orduan.

Emaitzen atal honetan, ezinbestekoa egiten zait hurrengo aipatzea: praktika “ez ohikoa” dela ikusi dudala. Hau da, eskola honetako lehen hezkuntzako haurrak behintzat ez daude ohituta horrelako praktikak aurrera eramatera. Hasteko, tatamia haur hezkuntzakoek erabiltzen dute haietzako aproposena dela esaten dutelako. Bigarrenik, Practicum III-ko txostena egiterakoan ateratu nuen ondorio nagusia, “Gorputz-Hezkuntzaren Didaktika I” eta “Motrizitatearen garapena” irakasgaietan baieztatu nuen, irakasleek lankidetzaren aurkaritzako egoera soziomotor gehiegi proposatzen dituztela da. Ia beti lankidetzaren aurkaritza taldeka jorratzen dute, beste egitura batzuei garrantzia txikiagoa edo nulua emanez: dueluen kasua, adibidez. Gure gizarteak proposatzen dizkigun ereduengatik gertatzen dena, gehienetan futbola beste praktika guztien gainetik aurkeztuz (Alfredo López de Sosoaga eta Ibon Etxeazarra irakasleen irakaskuntzei esker ateratako ondorioa. Haiekin batera, gure gorputz hezkuntzako esperientzia gogoratuz).

Oraingoan, emaitza kualitatibo moduan hartuko dut praktika “ez ohikoa” izatea. Batetik, nire formakuntza didaktikoan eragina izan duen faktore garrantzitsua delako (haurrentzako jardueraren ezezagunak direlakoan) eta bestetik, nire diseinu didaktikoa aplikatzearen bitartez lortu dudana delako, esperientzia honetatik jasotako argudioa.

Aurreko hau guztia, nik proposatutako aurkaritza zuzeneko bakarkako dueluetan oinarritutako planteamendua haurrengan garapen egokia suposatuta duela argi uzteko idatzi dut, argudio moduan erabili ahal izateko; proposamen didaktikoa aurrera eramandakoan antzeman dudana da eta. Marko teorikoan aipatu bezala, aurkaritza zuzenenean jardunez beste egituretan

aurkitzen ez ditugun onurak aurkitu ditzakegulako, besteak beste, kate-haptikoen kasua, aurretik azaldutakoa (Sánchez eta González, 2014).

5.2. SASI-IRAKASLE LANEAN LORTURIKO EMAITZAK

Graduko Practicum esperientzian aurrera eramandako jarduera etorkizuneko lanera eta mundu profesionalera egiten dugun hurbilpena da, irakaslearen lan erreala ezagutzeko eta aste batzuetan zehar hori bera burutzeko. Beraz, nire burua irakasle lanean sarturik ikusi dut denboratarte horretan; sasi-irakaslea izan naizela esan dezakegu.

Sasi-irakaslea izanik, metodologiako atazan aipatutako tresnak erabili ditut eta atal honetan, hauetako bien bitartez lortutako emaitzak deskribatuko ditut, arlo kualitatiboarekin jarraituz. Zehazki, tresna hauek behaketa parte-hartzailea eta gertaera adierazgarrien bilduma dira; haien artean konbinatu nahi izan ditudanak bateragarriak direla ikusi dudalako. Hots, gertaera adierazgarriak behaketa parte-hartzaileari esker eskuratu eta hausnarketaren bitartez garatu ditut. Hortaz, hauen konbinazioak sortu duen produktua plazaratuko dut honetan, aldaketa eta emaitza kualitatibo nabariak azpimarratu ditudala kontuan izanik.

Lehenik eta behin, behaketa parte-hartzailea hasterakoan, arraroa egin zitzaien nire presentzia hurbila eta hain aktiboa, baina aurretik irakaslearekin egon nintzenez, irakasle moduan tratatu ninduten hasieratik, gogotsu eta irrika handiarekin lehenengo jardueratik. Nahiz eta gogoindar hori handia izan, batzuentzat proposatutakoa ez ohikoa edo arraroa egin zitzaien, beste baten aurka indarraren erabilera egitea batzuegan motibazioa eta beste batzuegan tentsioa sortu zuen. Lehenengo saioetan zehar, indarraren erabilera osoa izan zen jarduera bakoitzean, hau da, egiten zituzten ekintzetan, 100% ematen zuten, bestearengan sor zezaketen minaren inguruan kontzientzia handirik izan gabe.

Hurrengo saioen amaieran, tertulia laburra egiten genuen, sentitutakoaren inguruan eta jardueren inguruko iritziak ezagutzen joateko. Hauek egitearen erabakia lehenengo saioaren amaieran egindako komentarioengatik hartu nuen eta hausnartzeko iturri garrantzitsua izan dira. Tertulia labur hauetan, saioaren garapena azaltzen nuen ere, haiek kontzientzia hartzeko eta indarra erabiltzearen jarraibideak gutxika barneratzeko. Saioek aurrera egin ahala, gogo-indarraren

kontrolean aldaketa eskasak antzeman nituen orokorrean, baina besteekiko jarreran nabariak izan ziren: mina ez egiteko ahalegina eginez eta ongizatearen inguruan batak besteari galdetzen.

Hurrengo asteetan eta amaierara arte, hurrek garapen nabaria eman zuten behin teknika eta jarraibideetan sarturik; haien gogo-indarra eta kontrola nabarmena zen minaren gaineko kontzientzia barneratuagoa zegoela antzeman ahal izan nuen: talka txikiak edota teknika batzuen ondorioz gertatzen den tentsioa ez ziren negar egiteko arrazoia haientzat. Gainera, gertaera adierazgarrien bildumari erreparatuz, laguntzeko nahia asko handitu zela esan dezaket, norbaitek benetan mina hartzen zuenean, berehala errekonozitu eta laguntzen zuten. Horrez gain, presio-egoeren aurrean, haien jarrera lasaiagoak nire atentzioa deitu zuen, haien estutasuna, kezka edo larritasuna gutxira egin zuen eta lasaitasun gehiagorekin, pentsatu eta aurkariari erantzuten zioten. Hala ere, larritasun krisiak ere egon ziren, haur bakoitzak gauzak era batera bizitzen dituelako (ikus 3. eranskina); hauek ere hausnartzeko arrazoi garrantzitsua izan dira.

Aipatzeko beste eboluzio esanguratsua, curriculum ezkutuarekin zerikusia duena da: nesken eta mutilen arteko kontaktuaren garapena; jorratu nahi izan nuen beste alderdietako bat. Metodologiaren atalean azaldu dudan moduan, gure inguruan izugarritzko eragina duen faktorea neska eta mutilen artean sortutako distantzia da (tratu desberdintasunari dagokionez). Tratuan desberdintasunak izatean, ikasgela desorekatzen dugu; gorputz hezkuntzaren kasuan neskak bigarren mailan utziz. Honi erreparatuz, hasieran desberdintasun eta distantzia nabarmenak antzematen nituen haien artean, “mutilen eta nesken aldeak”, adibidez, edota mutilen eta nesken artean bikoteak egitearen nahi eza (gertaerak osorik 4. eta 5. eranskinetan ikusgai).

Egoera horren kontra egin nahian, denbora oro zorizko bikote aldaketak planteatzen nituen; betiere, gradualki aurrera eginez jarduera kopuruari eta kontaktuari dagokienez, eta emaitza azpimarragarriak lortu ditut: amaieran, guztiz aske jardunez ere, normaltasunez hartzen zuten, gehienetan konfiantza osoa aurkeztuz aurkariaren sexua kontuan hartu gabe. Niretzat, aurrerapauso handia suposatu duen eboluzioa.

Beraz, honekin batera, metodologia atalean (“gertaera adierazgarrien bilduma” atazan) aipatutako adituek esandakoa argi eta garbi ikusi dut: bai curriculum ezkutuaren eragin itzela, bai deskribatzen duten Espainiako egoera (sexismoari edo generoen arteko desorekari dagokiena) eta honek gorputz hezkuntzako ikasgaiaren garapenean dituen ondorioak.

5.3. GALDETEGIAREN EMAITZAK


Galdetegiaren emaitzei erreparatzeko, egindako galderen ordena jarraituko dut. Baina, horren aurretik, lau galdera direla aipatu behar dut, non nesken eta mutilen arteko banaketa eginez desberdintasunak dauden ere aztertzeke, aurretik jorratutako curriculum ezkutuaren eragina datu kuantitatiboekin ere frogatzeko eta ondorio aberatsagoak ateratzeko asmoarekin. Hala ere, galdetegi honen funtzio nagusia haurren emozioak aztertzea dela gogoratu behar dut, esperientzia nola bizi izan duten jakiteko eta biolentziaren trataera identifikatzeko.

Hurrengo orrialdeetan, emaitzak irudikatzen dituzten grafikoak aurkituko dituzue, atal bakoitzak izenburu moduan jorratutako galdera eramaten duen heinean.

5.3.1. “Zer sentitu duzu Gorputz Hezkuntzako saio hauetan?”

Galdera honen helburu nagusia haurrek sentitu dutena biltzea da: emozio-zerrenda izanik, sentitu dituztenak markatu ditzakete (bat baino gehiago markatzea posiblea izan zen).

2. **grafikoa:** saioetan zehar sentitutako emozioen barra-diagrama.




Antzeman dezakegunez, *poza*, *alaitasuna* eta *barregura* nabarmentzen diren emozioak dira, egoera positiboak edo esperientzia politak adieraziz (hiruren artean, %56 nesken kasuan eta %55 mutilen kasuan). Mutilen kasuan, *maitasunak* ere abantaila nabaria ateratzen die bestelako emozioei. Ondoren, *lotsa* eta *tristura* bezalako emozioak datoz, baina aurrekoen erdia baino

gutxiagorekin, kontrako egoerak irudikatuz, negatibo moduan gogoratu ditzaketenak. Hauekin batera ere, *itxaropena* ikus dezakegu, harridura jarraian duelarik. Azkenik, *errukia*, *beldurra*, *haserrea*, *amorrua*, *larritasuna*, eta *errefusa* ditugu; azken bostak biolentziari lotutako emozioak izanik.

5.3.2. “Nolakoa izan da zure egoera orokorrean?”

Galdera honek hiru erantzun posible zituen: *positiboa*, *negatiboa* ala *anbigua/zalantzakoa*. Horrela, esperientzia osoaren inguruan hurrek izandako pertzepzioa jakiteko. Galdera honen erantzunak era argiagoan antzematen dira sektore-diagrama eran (portzentaiak ikusgai edukiz), beraz, horrela adieraztea erabaki dut.

3. grafikoa: egoera orokorraren sektore-diagrama (portzentaiak).




Islatzen denez, esperientzia positiboak gailentzen dira bi kasuetan ikasleen hiru laurden baino gehiagok haien egoera *positibo* moduan errekonozituz. Hala ere, aipagarria da mutilen kasuan askoz nabarmenagoa dela nesken kasuan baino, *negatiboa* erantzunak portzentai berdina hartzen duelako bi kasuetan, baina neskek zalantza gehiago dituzte mutilek baino. Antza, ez dakite positiboa, negatiboa ala bi motatakoa izan denik.

5.3.3. “Noiz sentitu duzu emoziorik indartsuena?”

Galdera honen bitartez, bizipenik indartsuena bilatu izan nahi dut, norbere buruarekiko hobeto sentitzen den heinean, emozio indartsua sentituz. Bizipen hau, irabaztean ala galtzerakoan

gertatu den jakin nahi izan dut, jarduera egin ondoren bi egoerak aurkituko ditugulako eta agresibitatea komunikazioaren parte denez, bi kasuetan ematen dena antzemateko.

4. grafikoa: emoziorik indartsuena: irabazterakoan ala galtzerakoan.




Antzeman dezakegunez, emozioen indarra irabazterakoan nagusitzen da galtzerakoan baino (neskei dagokienez %59 eta mutilei dagokienez %63). Hala ere, zalantzak presentzia nabaria duela aipatu beharrekoa da (%36 nesken kasuan eta %27 mutilen kasuan).

5.3.4. “Zein izan da emozioa kasu bakoitzean?”

Azken galdera hau aurrekoarekin lotuta dago. Izan ere, bai irabazterakoan, bai galtzerakoan, edozein kasutan sentitu duten emozio jakinak identifikatzean oinarritzen da. Emozio hori ezagutzen eta kontrolatzen dutelarik, aurkaritzan, hau da, lurreko borrokaren hastapenean aritu ostean, sentitu dutenaren errealitatea jakiteko.


Emaitza hauetan ere, mutilen eta nesken arteko banaketa egin dut eta haien emozioak adierazi ditut bai galtzerakoan, bai irabazterakoan. Beraz, lau grafiko desberdin aurkeztuko ditut datu guztiak era argian adierazteko. Horrez gain, aipatzekoa da honetan *zalantza* aukera ez dagoela; nahi izan duenak irabazterakoan naiz galtzerakoan bizitzako emozioa aitortzeko lekua izan du, soilik hauetako batean sentitutakoa esateko aukerarekin ere.

5. **grafikoa:** jardueraren ondoren sentitutakoa: irabazterakoan.



Argi ikusten denez, poza nabarmen nagusitzen da bi grafikoetan: mutil guztiek *poza* sentituz eta ia neska guztiekin berdina gertatuz. Hala ere, nesken kasuetan, *harridura* ere agertzen da.

6. **grafikoa:** jardueraren ondoren sentitutakoa: galtzerakoan (barra-diagrama).



Galtzerakoan, emozio-sorta zabala agertzen dela antzeman dezakegu, irabaztean agertzen denekin konparatuz. Honek, galtzeak irabazteak baino aniztasun handiagoa sortzen duela azalarazten du. Kasu honetan, zortzi emozio desberdin aurki ditzakegu, gehienbat *poza* eta *tristura* nagusituz, baina besteek ere presentzia izanik: *itxaropena*, *barregura*, *amorrua*, *haserrea*, *lotsa* eta *beldurra*, zehatz mehatz.

Datu eta emaitza hauekin guztiekin, ondorioak ateratzeko aukera zabaltzen zait, ikerketa lanaren ondoren konklusioetara heltzeko unea. Hurrengo orrialdeetan, emaitza hauen interpretazioa eta ondorioak aurkituko dituzue, arakatutako ibilbide guztiaren helmuga ikusteko.

6. ONDORIOAK

Hasteko, marko teorikoan aipatutako Tejero eta Balsalobre autoreen hitzak gogoraraziz, ez dut denbora askorik izan benetan biolentzia-jarrerak gutxitu diren baieztatzeko, baina bai hurrek nola jokutzen duten ikusteko, praktikatutakoa biolentzia moduan ikusten duten eta zer sentitzen duten jakiteko. Emaitzak ikusirik, hainbat ondorio atera ditzakedala uste dut, horregatik, hurrengo lerroetan aurkituko duzuen, ikerketa egin eta datuak bildu ondoren, ondorio eta hausnarketan sintesia da. Hau bi zatitan banatu dut beharrezkoa ikusi dudalako: ondorio multzo bakarrean bateratzeko aukera nuen, baina helburuetan eta emaitzetan banatzea erabaki dut produktu desberdinak lortu ditudalako.

6.1. HELBURUETAN OINARRITUTAKO ONDORIOAK

Lehenik eta behin, helburuetan planteatutakoaren arabera bete dudanari erreparatu nahi diot, helburu nagusiarekin hasiz: biolentziaren pertzepzio sozialaren azterketa. Honen inguruan, marko teorikoan aztertu dudala esan behar dut, niretzako behaketa eta ikerketa teoriko interesgarria eta aberasgarria izan dena. Izan ere, informazioa bilatzerakoan, kontzeptu eta teoria anitz ikasi ditut, gehiago ikertzeko irrikak piztu dizkidana eta, noski, biolentziari buruzko pertzepzioak eta aurreiritziak jakitea ahalbidetu didana izan da.

Helburu nagusia marko teorikoan jorratu dudalarik, azpi-helburuekin jarraituko dut, haurren lau arloak, autoestimua eta gogo-indarra eta errespetuaren lanketan zentratzen direnak. Hasteko, lau arloen jorrapenari dagokionez, arlo fisikoa eta emozionala jorratu ditut gehienbat, gorputz hezkuntzan jardun dudala kontuan izanik (motorki aktiboak izan direlako eta emozioen azterketa egin dugulako). Honekin batera, arlo sozialaren lanketa nabarmena ere egin dugu, erlazioak ezinbestekoak direlako jarduerak egiteko, gehienbat aurkaritzan oinarrituz. Gainera, neska eta mutilen arteko erlazioari erreparatuz, hurbilketa eta normalizazioa egon dela antzeman dut, geroago luzatuko dudan ideia. Ondoren, emozionalki dituen onurei helduz, ikerketaren amaieran esperientzia positiboak nabarmendu direla antzeman dut, emozio-aniztasuna ikusiz, beraz, gogobetegarria izan dela ere esan dezaket; edozein kasutan, poza eta alaitasuna gailendu dira eta. Azpi-helburuekin amaitzeko, gogo-indarra eta jokabide etikoa jarri nituen ardatz moduan errespetuaren lanketa egiteko; hauetan, hobekuntza ikusi dut behaketa parte-hartzailearen bitartez. Izan ere, hasieratik amaierara izandako eboluzioa esku-hartze aproposa izan dela ondorioztatzen

eraman naute: besteekiko tratua hobetu delako, indarraren erabileraren gaineko kontrola ere hobetu den heinean, haien muga zein den gehiago ezagutzen.

6.2. EMAITZETAN OINARRITUTAKO ONDORIOAK

Ondorioekin jarraitzeko, emaitzei esker atera ditudan ondorioak plazaratzea nahiko nuke, emaitzen hiru mota kontuan izanik, ondorioak ere hiru ataletan banatuz:

Hasteko, emaitza didaktikoei esker atera dudan ondorioak nagusia praktika “ez ohikoa” dela da; hau da, ikasleak aurkaritza zuzenean (bakarkako duelu simetrikotan, zehazki) aritzera ohituta ez daudela. Hasieran, arraroa egiten zitzaizkien kide bakar baten kontra aritzea, gainera, indarra erabilita. Gaur eguneko irakasleek ez dituzte praktikak aldatzen: taldekako lankidetzak-aurkaritza jorratzen dute beti eta “zelai-errea”, “stop” eta jolas edo joko estandarizatuak erabiltzen dituzte denbora oro, saioei jarraikortasunik eta aberastasunik eman gabe. Hots, planteamendu anitzak behar ditugu non lankidetzak, aurkaritza eta zalantza mota desberdinak jorratzen ditugun. Horregatik, praktika hauen garapena beharrezkoa da, haurrei gorputz hezkuntza aberatsa eskainiz, arloak merezi duen garrantzia onartua izateko.

Ondoren, sasi-irakasle moduan ateratako emaitzetan oinarrituz, bi ondorio aipagarri komentatu nahi ditut. Alde batetik, indarraren erabilerarekiko izandako garapena; aurretik aipatu dudan moduan, gero eta konfiantza handiagoa izan dute jarduterako orduan eta minaren muga eta gogo-indarraren kontrolean hobekuntzak egon dira. Bestetik, hirugarren paragrafoan aipatu dudan neska eta mutilen arteko harremanak aldaketa nabaria jaso du. Izan ere, hasieran ia ez zuten batera jarduten, bikoteak egiterakoan beti lagun onenarekin jartzen ziren eta beste sexuarekiko harremana nahiko urruna zen, ahalik eta kontaktu gutxien bilatuz. Baina saioak aurrera egin ahala, guztiak batera jarduten hasi dira, kontaktua jardueraren alderdi naturala dela barneratzen hasi eta beste kide batzuekin hurbiltasunez jarduteko aukera izan dute. Aldaketa horren ondorioz, saioen hasieran ez dira betiko ikaskideekin egon, haien artean ireki dira eta beste batzuekin gehiago hitz egin dute. Niretzako, hobekuntzarik esanguratsuenetarikoa izan da.

Emaitzek ahalbidetu dizkidaten ondorioekin bukatzeko, egindako galdetegiaren emaitzak aztertu ditut, hainbat ondorio eta azpimarratzeko datuak bilduz. Hauekin hasteko, gailentzen diren emozioak izendatzen hasiko naiz: alaitasuna, umorea/barregura, maitasuna eta poza. Izan ere,

biolentziak biltzen ez dituen emozioak dira. Beraz, positibotasuna aurkitzen dut emaitza hauetan. Are gehiago, agresibitatea jorratu dugularik, horrelako emozioak izateak, agresibitatearen alderdi positiboa azpimarratzera bultzatzen nau: besteekiko erlazioa gehiago estutzea eta hori kontrolatzeak ekartzen dituen ikasketa-egoera aproposak. Bestalde, biolentziarekin erlazionatzen ditugun emozioak oso gutxitan agertu dira (bakarrik pertsona batek hautatu ditu). Ondorioz, honek ere bi aldeak ezagutzera ere eraman gaitzakeela ikusi dut, horren gainean lan egiteko nahia handitu duena.

Honekin jarraituz, oro har, esperientzia positibo moduan deskribatu dute hurrek, nahiz eta batzuen gustukoa ez izan. Esperientzia guztiekin gerta daitekeena dela uste dut: askotan, gehiengoarentzat aproposa izan arren, batzuei ez die esperientziak beste batzuei bezala eragin egiten. Hala ere, ia guztientzat berria izan den praktika dela kontuan hartuz eta positiboa izan dela ikusiz, eragina izan duela esan dezaket eta pozik egoteko beste arrazoia da.

Horrekin batera, emaitza hauetan aurkitu ditudan datu azpimarragarriak eta bitxiak (niretzat behintzat) aurkeztu nahi ditut. Hasteko, azkenengo saioetako borrokak ikusiz, galtzerakoan ikasle asko barreka hasten zirela antzeman nuen, galdetegian ere adierazi dutena. Niretzat oso esanguratsua izan zen, galdu izan arren, ondo pasatzen ari zirela ikusi nuelako (borrokaren amaierako posizioak barregura ematen zien). Galtzaile eta irabazle argiak ondorioztatzen dituen kirol-praktika den heinean, batzuek ez dute aproposa ikusten, baina hurrek horrelako egoerak barreekin bizitzea oso egokia dela uste dut (kasu guztietan, poza sentitu dute, adierazgarria benetan). Bestalde, irabazterakoan batzuek harridura sentitu dutela nabarmentzeak garrantzia merezi duela uste dut; gehienbat, guztiak neskak izan direlako. Hau, nik bizi izandakoaren antzekoa da: gure txikitako saioetan, neskek irabazterakoan harridura sentitzen genuen eta gaur egun jarraitzen duela ikusi dut. Gainera, galtzerakoan, mutilek hobeto hartzen dutela antzeman dezakegu, neskek tristura gehiago sentitzen dutelako eta mutilek poza eta amorru gehiago. Nire ustez, lanketa beharra dagoela adierazten du honek gutziak; berdintasunaren bidean gaudela errealitate argia da.

Amaitzeko, orokorrean emozio eta esperientzia positiboak sortarazi dituela ikusirik, berez biolentzia ez den praktika dela esan dezakegu. Izan ere, baliabide aberatsa dela esatera ausartu naiteke, horrela antzeman eta baieztatu dudalako: milaka garapen-aukera zabaltzen dituen. Adibidez, sexuen rolen trataera ere egin daiteke, nire helburuetan ez zegoena, baina garrantzia handia hartu duena lanean zehar. Trataera honek agresibitatearekin eta biolentziarekin duen

zerikusia zuzena dela esan dezakegu; sexu bereko eta desberdineko pertsonekin jarduterakoan agresibitate-maila desberdina ere aurkezten dugulako; hau da, ez dugu guztiekin berdin jarduten.

Laburbilduz, biolentziari buruzko informazio asko dugu gure inguruan eta denontzako beharrezkoa da trataera egokia eta zuzena egitea. Horrela, pil-pilean dagoen gai honen inguruan kontzientzia handia har genezake eta, seguruenik, arazo asko ere konpondu. Horretarako ere, arte martzialak praktikatzeari aukera aipatzen da; gaur arte esperientzia pertsonaletik eraman dudana, baina gaurtik aurrera irakasle roletik antzeman eta berretsi dudana profesionalen iritziak aztertu ondoren.

7. HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK

Lana amaitzear dagoelarik, ondo bete ditudan arloak errekonozitu ditut, baina hobetu beharrekoak ere ditudala aitortu behar dut. Izan ere, lanean aurrera egin dudana heinean, gero eta gehiago ikertu nahi dudala onartzen dut; gai honen inguruan irakurtzerakoan, beste gai asko aztertzeko aukera zabaldu zait eta guztiak interesgarriak dira. Beraz, proposatzen dudana lehenengo hobekuntza-proposamena, gai gehiagori buruz ikertzea da (biolentziarekin zerikusia duten gaiei buruz); adibidez, generoaren trataera biolentziaren ikuspuntutik. Horrela, lana erabat osoa izango litzateke, aberastasun handia lortuz. Gai hauen artean, autoestimua hobekuntza arte martzialen bitartez edota honen bitarteko berdintasunaren trataera daude. Gorputz hezkuntzako arloan oso interesgarriak direnak eta gizarterako aurrerapausoa suposatzen dutenak. Horiekin ere, itsuen edo bestelako urritasunak dituzten ikasleen inklusioa ikasgelan horrelako praktikak eginez eta beste kirol-praktika batzuen lanketa gehitzea (nire hasierako intentzioa zena, baina denbora eta material faltagatik aurrera eraman ezin izan dudana).

Interes handia izan arren, denbora faltagatik utzi ditudan aukera hauez gain, gehiago sustatu nahi izan ditudan baloreak aipatu behar ditut, hau da, marko teorikoan deskribatu dudana “Zen” filosofiaren lanketa. Izan ere, Funakoshi maisuak adierazi zuen moduan, norberaren asebetetzea eta hobekuntza bilatuz eta ez bestelako helburuak izanik, ez materialistak, ez biolentoak, ez txapelketakoak. Horrela, irabazle-galtzaile ideologiaren kontra egin genezakeela uste dut, gure gizartea horretan murgilduegia dagoela ere uste dudalako. Beharbada, filosofia hori jorratuz, ikasle guztien gustukoa izatea lortuko nuke, askori irabazle edo galtzaile izatea ez zaiolako batere

gustatzen eta deseroso sentitu daitekeelako; hobetzeko gelditzen zait beste alderdi bat: haur guztien onarpen arrakastatsua. Beste hitzetan, inklusioa izendatu dezakeguna.

Amaitzeko, arte martzialek zabaltzen dituzten onura sorta zabala aipatu behar dut. Izan ere, hauek eskaintzen dizkiguten onura gutxi batzuk jorratu ditut, baina beste asko alde batera utzi ditut txostena gehiegi ez luzatzeagatik eta aipatutako denbora faltagatik. Beraz, hobekuntza proposamen gisa, beste aukera askorekin batera, “Bullying”-aren aurka egin genezakeen erabilera gehitu nahi dut. Honen inguruan, aditu askok ikertzen ari dira eta arte martzialek funtsezko papera joka lezakete jazarpenaren kontra. Adibidez, Judoko edo Mugendoko eskola askok, psikologoek eta pedagogoen laguntzarekin batera, “Antibullying” saioak eramaten dituzte aurrera, kirolaz gain, beste arloak ere jorratzen dituen praktika: “La idea es que el niño respete unas normas en el tatami, pero también en casa. Una agenda de uso diario sirve para que padres y centro estén al corriente de la evolución del pequeño y su grado de cumplimiento de tareas, deberes, normas, etc” (Fominaya, 2016).

8. ERREFERENTZIAK

Acaso, M. & Nuere, S. (2005): *El currículum oculto visual: aprender a obedecer a través de la imagen*. Madrid: Universidad Complutense de Madrid.

Ali, T.; Emrah, A.; Fahri, A.; Necmettin, P. & Gülcan, T. (2010). Martial artists versus team sportsmen: aggressiveness and received social support. *Ovidius University Annals (Physical Education & Sport/Science)*. *Movement & Health*, 10, 202-207.

Álvarez, C. (2008). *La etnografía como modelo de investigación en educación*. Oviedo: Universidad de Oviedo.

Angulo, A.; Caño, A. & Elorza, C. (2017). *Genero berdintasuna lehen hezkuntzan eta DBH-n Euskadin*. Bilbao: ISEI-IVEI.

Beilock, S. (2011). *Choke. The Secret of Performing Under Pressure*. London: Constable.

Buendía, L.; Colás, P. & Hernández, F. (1998). *Métodos de investigación en Psicopedagogía*. Madrid: McGraw-Hill.

Camean, C. (2015). *Violencia y sociedad*. Valdivia: Universidad Austral de Chile. <https://www.cronista.com/columnistas/Violencia-y-sociedad-20151020-0043.html> estekatik berreskuratua.

Clements, J. (2006). A Short Introduction to Historical European Martial Arts. *Meibukan Magazine*, 1: 2.

Colás, P. & Buendía, L. (1998): *Investigación Educativa*. Sevilla: Alfar.

Collard, L.; Frigout, J. & Laporte, R. (2012). *The practice of karate and the control of aggressiveness in prison*. Paris: De Boeck Supérieur.

- Danaher, J. (1996-2019). *Renzo Gracie. Brazilian Jiu Jitsu*. <http://www.renzogracie.com/jiu-jitsu> -tik berreskuratua.
- Eusko Jaurlaritz (2016). Heziberri 2020. *Oinarrizko Hezkuntzako Curriculuma: 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea*. Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila: Euskal Herria. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_oso.pdf estekatik berreskuratua.
- Freud, S. (1930). *El malestar en la cultura*. Madrid: Alianza.
- Fominaya, C. (2016): Artes marciales para combatir el bullying. *ABC Educación (23/09/2016)*. https://www.abc.es/familia/educacion/abci-artes-marciales-para-combatir-bullying-201609222056_noticia.html -tik berreskuratua.
- Funakoshi, G. (1986). *Karate-Do. Mi camino*. Madrid: Eyras.
- García, A. (2017). Violencia en la sociedad. *El Nacional (11/07/2017)*. http://www.el-nacional.com/noticias/columnista/violencia-sociedad_192393 estekatik berreskuratua.
- Gibbs, G. (2012). *El análisis de datos cualitativos en investigación cualitativa*. Madrid: Morata.
- González de Angelini, S.; Río de Landaburo, E. & Rosales, S. (2005). *El currículum oculto en la escuela: "la pobreza condiciona pero no determina": trabajo social y educación*. Buenos Aires: Lumen.
- Gracie Barcelona (2016). *Historia: ¿Qué es el BJJ?* http://graciebarcelona.com/?page_id=356 -tik berreskuratua.
- Gracie, R. (1999). *Choke*. Polygram Motion Pictures.
- Green, T. & Svinth, R. (2010). *Martial Arts of the World: An Encyclopedia of History and Innovation*: 52, 97, 202, 306. California: Greenwood.

- Hall, E. T. (1966). *The hidden dimension*. New York: Anchor Books.
- Hall, E. T. (2005). *La dimensión oculta*. Buenos Aires: editores siglo XXI.
- Hammersley, M. & Atkinson, P. (1994). *Etnografía: métodos de investigación*. Barcelona: Paidós.
- Hik Hasi (2017). Agresibitatea, ezinbesteko bizi-indarra. *Hik Hasi*. http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20171024/Agresibitatea_ezinbesteko_bizi_indarra -tik berreskuratua.
- Huntingford, F. & Turner, T. (1987). *Animal conflict*. London: Chapman and Hall.
- Jaqueira, A. R.; Lavega, P. L.; Lagardera, F. L.; Coelho, P. & Rodrigues, M. (2014). Educando para la paz jugando: género y emociones en la práctica de juegos cooperativos competitivos. *Educatio Siglo XXI*, 32 (2), 15-32. Lleida: Universidad de Lleida.
- Jiménez, F. (2012). Análisis estructural y funcional de los juegos deportivos. *Acciónmotriz*, 6: 39-57.
- Munduko Osasun Erakundea (2012). *Temas de salud: Violencia*. Suitza: Ginebra. <https://www.who.int/topics/violence/es/> -tik berreskuratua.
- Palomero, J. E. & Fernández, M. R. (2001). Violencia escolar, un punto de vista global. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 41: 19-38. Murcia: Universidad de Murcia.
- Parlebas, P. (1987). *Perspectivas para una educación física moderna*. Málaga: Unisport.
- Parlebas, P. (1988). *Elementos de sociología del deporte*. Málaga: Unisport.
- Parlebas, P. (2001). *Juegos, Deporte Y Sociedad. Léxico De Praxiología Motriz*. Barcelona: Paidotribo.

- Praktika Dekanordetza (2016). *Practicum IIIren Plan Orokorra*. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Vitoria-Gasteiz: UPV-EHU. <https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-eta-kirol-fakultatea/praktikak-hezkuntza> -tik berreskuratua.
- Sánchez García, R. & González Álvarez, A. (2014). *Las cadenas hápticas como herramienta didáctica para la enseñanza de habilidades motrices*. Madrid: Universidad Europea.
- STANDS4 (2019). *Definition: Combat Sports*. <https://www.definitions.net/definition/COMBAT+SPORT> -tik berreskuratua.
- Tejero, C.M. & Balsalobre, C. (2011). Práctica de artes marciales y niveles de actitud hacia la violencia en adolescentes. *Revista de Ciencias del Deporte* 7: 13-21.
- Tinning, R. (1992). *La educación física, la escuela y sus profesores*. Valencia: Universidad de Valencia.
- Sáez de Ocáriz, U.; Lavega, P.; Lagardera, F.; Costes, A & Serna, J. (2014). ¿Por qué te peleas? Conflictos motores y emociones negativas en la clase de Educación Física: el caso de los juegos de oposición. *Educatió Siglo XXI*, 32 (2): 71-90. Lleida: Universidad de Lleida.
- Zuluaga, J. (1993). *Violencia y sociedad*. Bogotá: Universidad Nacional de Colombia.

9. ERANSKINAK

1. eranskina: gertaera adierazgarriaren adibidea.

MARTIN BORROKATZEN AZTORATZEN DA

KASUAREN DESKRIBAPENA

Nik prestatu beharreko saioen artean, gaur, azkenekoa egin dut Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako talde batekin. Honetan, lurreko borrokaren hastapena aurrera eraman dugu Tatamian: “Tatamiko erregea” jolasaren bitartez, zeinetan haurrek borrokatu eta irabazi behar duten erdian jarraitzeko. Haiiek dakitenez, nire saioetan heldu eta botako dira haien artean, baina beti kontrolaturik; eta garrantzitsuenak, kolperik eman gabe. Martin eta Aitor erdian daudela, Aitorrek immobilizazioa egiten dio Martini; azken honek, irteten saiatzen da, baina ezin duela ikusterakoan, barrezka hasi, animalia soinuak egin eta kontrolik gabeko mugimenduak egiten eta kolpeak ematen hasi da norabidea ere kontrolatu gabe.

EMOZIOEN DESKRIBAPENA

Nahiko harrিতuta gelditu naiz une batetik bestera hasi delako dena modu egokian egin ostean. Aldi berean, haserretuta lelokeriak egiten hasteagatik nire azken saioan, asko prestatu dudana; baina beldurtuta ere, norbait mintzeko beldurra sentituz.

EGOERARI AURRE EGITEA

Berehala, borroka etendu eta gertatzen ari izan denaren inguruan hitz dut guztiekin, denok nahiko larriturik egon direlako. Martini zuzenki hitz egin diot errieta botatzeko tonuan hitz eginez; oso txarto egin duen ekintzaren arriskuaz ohartzeko.

JOKAERAREN EMAITZA

Martinek, bere jokaera txarra onartu du eta goibel irten da erditik, Aitorri barkamena eskatuz.

PLANTEATUTAKO DILEMAK

Egia esanik, ez dut zalantzarik izan feedback hori ematerako orduan. Nire ustez, txarto egindako gauzak ere esan behar dira eta are gehiago arriskutsuak badira.

KASUAREN IRAKASKUNTZA

Martin goibel irtetea ez zait batere ondo sentiarazi, baina egoera hauek konpondu behar direla argi dut; beraz, hurrengo batean, norbait kolpeak ematen hasten bada, horrela edo antzerako era batean moztuko dut egoera.

2. eranskina: garapena ebaluatzeko errubrika.

EBALUAZIO FITXA				Gela:	Data:	
1-4: Gutxi	5: Nahiko	6: Ondo	7-8: Oso Ondo	9-10: Bikain		
KONPETENTZIAK	ZEHARRAKOAK			ESPEZIFIKOAK		
IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK Motibazioa kontuan izanik, borondataa eta kontrola du ekinizak egiterako orduan.	Jarrabideak emanda daudela, ekiniza era egokian aurrera eramaten dituz teknika eta modua errespetatuz.	Arrietak egiterako orduan, eskatzen diren arauak eta jarrabideak errespetatzen eta jarraitzen dituz.	Gogoz eta inplikaturia parte hartzen du proposatzen diren ariketa fisikoeetan.	Jolasen oinarrizko dauden balioak identifikatzen ditu.	Joko-arauak ezagutzen eta betetzen ditu, garai penak eta porrotak onartuz.	Bere gaitasunen garapen maila errespetatzen du.
Izen-abizena						
Izen-abizena						
Izen-abizena						
Izen-abizena						
Izen-abizena						
Izen-abizena						
Izen-abizena						
Izen-abizena						
...						

OHARRAK:

3. eranskina: larritasun krisia borrokatzen.

IBAIEN LARRIALDIA

KASUAREN DESKRIBAPENA

Lehen Hezkuntzako 3. mailako gela batean, nire tutorearen gelan zehatz mehatz, Gorputz Hezkuntzako esku-hartzeko azken saioan gaude, eskolako tatamian. “Immobilizazioak” jolasa egiten “The king of the track” jolasarekin nahasturik. Honetan, Nereak eta Ibaik parte hartzen dute, Nereak immobilizazioa egiten eta Ibaik ihes egiten. Ihes egin ezinean, Ibai larritasun handia sentitu du eta negarrez hasi da “casi me mata” esanez. Nahiz eta lasaitu ostean minik egin ez diola esan, oso une esanguratsua izan da denontzat.

EMOZIOEN DESKRIBAPENA

Nahiko larritu naiz negarrez ikustean, nik planteatutako dinamika izan delako. Hala ere, argi ikusi dut minik ez diola egin, kanpotik ikusten eta zaintzen egon naizelako, baina bera horrela ikustean, larritu naiz.

EGOERARI AURRE EGITEA

Ibairi niregana etortzeko esan diot eta besteei ezagutzen duten jolas bat egiteko esan didan bitartean. Momentu horretan, negar egiteari utzi dio eta asko lasaitu da; ondo dagoela ere esan du. Nire ustez, baieztatu ez didatelako, txikitan egoera zailak bizi izan zituen (Errusiatik ekarritako haurra da) eta horregatik larritasun egoeren aurrean jarrera ezkorra aurkezten du.

JOKAERAREN EMAITZA

Nire ustez, emaitza positiboa izan da, Ibai lasaitu delako, baina jokoa etendu eta beste bat hasi dut, beraz, ez naiz guztiz ondo gelditu.

PLANTEATUTAKO DILEMAK

Jokoarekin jarraitu ezinak ez dit dilema handirik sortu. Egia esanik, argi izan dut Ibai lasaitzea garrantzitsuena zela. Hala ere, bakarrik egoteak larritasuna mantendu du niregan.

KASUAREN IRAKASKUNTZA

Kontu handia izan behar dugu horrelako jolasetan eman daitezkeen egoerekin, haurrek atzetik duten kontuan hartuz eta konponbide posibleak ahalik eta hoberen ezagutuz.

4. eranskina: sexismoaren inguruko gertaera (1).

NESKEN ETA MUTILEN ALDEAK

KASUAREN DESKRIBAPENA

4.A gelako ikasleak frontoian itxaroten egon naizela, gutxika heltzen hasi dira, orden zehatza jarraitu gabe. Hala ere, heltzen joan diren heinean, mutilak nire eskumara eta neskak ezkerreara jarri dira automatikoki. Holako batean, azkena izan den mutil bat ezkerrean jarri da eta saioaren harrera egiten hasi naiz. Bat-batean, mutil horrek “¡Bua, si estoy en el lado de las chicas!” ozenki esan du eta beste aldera aldatu da korrika eginez.

EMOZIOEN DESKRIBAPENA

Gutziz harrিতuta gelditu naiz honekin; alde batetik, beste geletan gertatzen ez delako eta bestetik, nire Lehen Hezkuntzako garaian egiten ez genuelako.

EGOERARI AURRE EGITEA

Beharbada, profesional batek ez luke ezer esango, baina nik nire harrerako azalpena gelditu eta nesken alde eta mutilen aldearen inguruan hitz egiten hasi naiz, ondoren haien iritzia ere eskatuz txandak errespetatuz. Ondoren, nirekin horrekin apurtu beharko dutela esan diet, ez dela egongo inolako bereizketarik adieraziz.

JOKAERAREN EMAITZA

Batzuek komentatutakoa txunditurik utzi nau. Gehienbat, mutilek, Gorputz Hezkuntzan horrela egotea hobeago dela esan dute, neskak eta mutilak banatzerakoan, hobeto jardungo dutela maila altuagoa izanik.

PLANTEATUTAKO DILEMAK

Hurrek esandakoaren aurrean gai horrekiko formakuntza falta sentitu dut nire buruan. Nire iritzian oinarriturik hitz egin dut eta ondo egin dudala deritzot, baina argudio solidoagoak eta diskurtso hobe behar dudala uste dut.

KASUAREN IRAKASKUNTZA

Hezkidetzan eta berdintasunean oinarriturik irakatsi behar dugula txikitatik, horrelako jarrerak ekiditeko. Saioak aurrera egin heinean, ideia hauek zerbait aldatzea espero dut.

5. eranskina: sexismoaren inguruko gertaera (2).

IMANOL NESKEKIN JOLASTEAREN INGURUAN

KASUAREN DESKRIBAPENA

Practicum-eko azken aurreko asteko ostegunean gaude, nire tutoretzako ikasleekin “Zaldunak gora eta behera” jolasera jolasten, zeinetan bikoteka bata bestearen gainera igo, jaitsi, korrika egin korroari buelta eman eta bikotearen hanken azpitik igaro behar diren. Bikoteak eginda daudela eta hasteko keinua egin dudala, Imanol ez da mugitu; Naiararen bikotea izatea egokitu zaio eta jarrera oso ezkorra aurkezten du Naiara nahiko triste ikusten dugula. Denek korrika egiten amaitu dute eta zer gertatu den galdetzen diot (gazteleraz, Venezuelatik etorri berria delako) eta bere erantzuna hau izan da: “¿No podríamos hacer otra cosa? Es que yo allá no jugué nunca con chicas. Son peores y además no nos tenemos que tocar entre nosotros para jugar”.

EMOZIOEN DESKRIBAPENA

Momentu horretan aho bete hartz galditu naiz. Gaur eguneko gizartean horrelako ideiak egotea asko harritu nau, batez ere, hirugarren mailako haurra dela kontuan hartuz.

EGOERARI AURRE EGITEA

Saioa eten eta horri buruz hitz egin dugu, guztiok hemen berdinak garela eta ondo pasatzen dugula esanez. Ikasleriaren laguntza sentitu dut haiek esandako hitzetan eta Imanoli jolasaren ideia positiboa transmititzen saiatu naiz denok berdin jarduten dugula adieraziz.

JOKAERAREN EMAITZA

Pixka bat lasaitu da eta parte hartu du, baina kontaktuarekiko ezkortasuna aurkeztuz.

PLANTEATUTAKO DILEMAK

Argi eta garbi, egoerarik zailenatarikoa iruditu zait: beste kultura bat, beste ideia batzuk... zer esan eta nola esan asko zaindu behar izan dut inor ez mintzeko eta dena “normaltzat” hartuz.

KASUAREN IRAKASKUNTZA

Egia esateko, gai honen inguruan hausnartzera bultzatuta sentitu naiz. Horrelako ideien aurrean nola jokatu behar dugun ondo ez dakigulako eta izugarrizko garrantzia duelako hezkuntzan. Gure ideiak egokiak direla uste dugulako, baina esateko erak ideien zuzentasuna eta egokitasuna kolokan jarri ditzakeelako. Honen inguruan profesionalekin hitz egitea gustatuko litzaidake.